


t tipi t tapa

2007ko uztailaren 26a • XXVII. urtea
www.ttipi.net

451



**Irailean erabakiko da
Maierren etorkizuna**

03

Maier enpresan arazoak daude. Zuzendaritzaren proposamenak, 107 langile kaleratzea aurrei-kusten du, eta langileen artean ziurgabetasuna nabaria da.



**Leitza Herriarteko
Nafarroako txapelketa**

45

Aurrerak Nafarroako Pilota Txapelketako txapela jantzi du hiru-garrenez. Huarteren kontra aritu zen finalean, eta zazpi tantoko aldearekin nagusitu zen.



NAFARROAKO HERRI KIROL TXAPELKETAK

43

San Ferminetan eskualdeko kirolariak nagusi



MIRENTXU BENTA

Gizon, emakume eta haurrendako arropak • Oroigarriak
Jaio berriendako arropak • Harriak • Zapatak • Alabastroa
Lanparak • Bisuteria • Janaridenda

Ibardingo gaina • Tel.: 0034 - 948 630 717 • BERA (Nafarroa)



VENTA BLOK

HAUR, GAZTE ETA HELDUENTZAT
ARROPA DENDA ETA OSAGARRIAK
Diesel, Replay, Miss Sixty, Hugo boss, Tommy Hilfiger,
Le temps de cerises, Guess, etab.

ABUZTUAREN 27tik aurrera MERKEALDIAK

Janaridenda
Opariak
Ostatua



LURRINDENDA KOSMETIKA

- Goi mailako lurrinetan
espezializatua
- Kosmetika eta lurrindegiko
lehendabiziko markak

Ibardingo gaina • Tel.: 948 630 707 • BERA (Nafarroa)

DATUAK...

- Autoendako plastikozko piezak egiten dituen Ultzamako Maier enpresan eskualdeko aunitzek egiten du lan. Etorkizuna, ordea, ez da ziurra. LABeko Iñaki Zelaietak xehetasun gehiago eman dizkigu.
- Zuzendaritzak uztailaren 3an aurkeztutako Bideragarritasun Planaren arabera, bi pintura makinetatik bat Txekiara eraman nahi da. Horrek 107 langile kanporatzea ekarriko luke.
- Irailean amaituko da negoziazioak egiteko epea.



Iñaki ZELAIETA LABek Maier enpresan duen ordezkaria

ARGAZKIA: GOIZALDE URDANPILLETA

«Iraila bitarte ez dute inor kaleratuko, gero ikusiko da zer erabakiko den»

Goizalde URDANPILLETA

Zuzendaritzak Bideragarritasun Plan aurkeztu du, eta langilegoaren tzat ez da batere plan ona...

Ez, ez da ona ez. Zuzendaritzak enpresan galerak egon direla esan izan du, eta Maier barne hartzen duen MCC kooperatibak dirua paratu behar izaten zuela eta ez dela errentagarria. Orain hiru hilabete-edo zuzendaritzari plan bat egiteko eskatu genion, eta uztailaren 3an aurkeztu ziguten. Plan horretan esaten dena sorpresa izan da guretzat. Une honetan, Ultzaman bi pintura makina daude. Horietatik bat itxiko zela bagenekien, legea aldatuko delako eta makina hori bazterrerara geldituko delako. Baina sorpresa hartu dugu, beste makina errentagarria ez dela esan digutenean. Autoen barruko piezak pintatzen dituen makina Txekiara eraman nahi dute, eta hori horrela, 107 lagun lanik gabe gelditzeko arriskua dago. Hortxe sortu da arazoa, hainbeste jende bat-batean bidaltzeko aukera ez genuen inondik inora ere espero.

Zein izan zen zuen erantzuna?

Langileekin batzarra egin genuen eta

«Zuzendaritzak hasieran gurekin ez zuela negoziatu nahi esan zuen, baina grebarako deialdia egindakoan negoziatzeko prest agertu zen»

egoeraren berri eman, zuzendaritzak eskaintako plana zertan datzan azalduz. Hortik, greba egitea erabaki zen. Izan ere, enpresak ez zuela gurekin negoziatu nahi esan zuen hasieran, eta bideragarria izateko horrela egin beharko zutela. Greba ostegun baterako deitua zegoen, baina aurreko asteartean eseri eta negoziatzeko prest agertu ziren.

Momentu honetan zertan da egoe-ra?

Une honetan, enpresak eta langileen batzordeak negoziaketekin segituko dugu. Eraman nahi den makina hori bideragarria den ala ez aztertu behar dugu orain, eta horretarako iraila bitarteko epea dugu. Gero ikusiko dugu zer erabakitzen den, baina iraila arte jendeak lanean segituko luke, printzipioz. Irailaren 3a da negoziazio horiek ixteko azken eguna.

Enpresak egin du bertzelako proposamenik?

Bai, aurkeztu zuen Bideragarritasun Planen etorkizunean bazkide izateko proposamena aipatu zen. Hor esaten denez, 2009rako bideragarria izanen litzateke, eta orduan, bazkide sartzeara proposatzeko aukera egonen litzateke. Horretarako, ordea, orain 107 langile kanporatuko lituzkete. Eta gure aldetik, hori baino lehen —kooperatiba izan baino lehen— lanpostu horiek mantentzen saiatu nahi dugula esan genuen.

Nongoak dira, batez ere, Ultzamako Maier enpresako langileak?

Baztango jendeak, Bertizaranakoak, Malerrekako asko... Leitzaldekoak eta Ultzamakoak ere badaude, Bortzirietatik etortzen denik ere bai, baita Iruñeko jendea ere.

Nola ikusten duzue etorkizuna?

Eraman nahi den makina errentagarria den ala ez ikusi behar da, eta errentagarria izatea lortu, bestela, lanpostuak hemendik eramanez dituzte. Guk erretagarritasuna bilatzen segituko dugu.

HAUTESKUNDE-EMAITZEN ARABERA

Sindikatu abertzaleek gehiengoari eusten diote eskualdeko lantegietan

Hego Euskal Herrian azken urte honen bueltan egin dira hauteskunde sindikalak lantegiz lantegi. Gure eskualdeari erreparatuz gero, zenbait aldaketa izan badira ere, sindikatu abertzaleek jaun eta jabe izaten jarraitzen dute, ELAk eta LABek, hurrenez hurren. Halere, nabarmentzeko datua UGT sindikatutik dator; aitzineko hauteskundeetan delegatuen %6 inguru eskuratu zuen; lau urte beranduago, berriz, %13ra igo da. Gorakada hori batez ere, Baztan-Bidasoako anbulantzietan izan den langileen gorakadak ekarri dio. Lehen ordezkariarik ez zuen lekuan bortz eskuratu baititu.

ORDEZKARITZA SINDIKALA LANTEGIZ LANTEGI (2007/07/26)

ARANO	Komenioa	Zentsoa	ELA	LAB	UGT	CCOO	Bertzeak	Iraupena
Heinneken España	Edariak	104	5	3	1	0	0	2010/12/01

ARESO	Komenioa	Zentsoa	ELA	LAB	UGT	CCOO	Bertzeak	Iraupena
Hormigones Leitzaran	Zementua	10	1	0	0	0	0	2009/06/19

BAZTAN	Komenioa	Zentsoa	ELA	LAB	UGT	CCOO	Bertzeak	Iraupena
Baztango Udala	Funtzionario	25	0	0	2	0	0	2007/06/09
Baztango Udala	Laboralak	24	0	1	0	0	0	2007/07/18
Benito Menni (Pilar)	Erresid. Prib.	159	6	0	0	0	3	2010/03/11
Acha Harrobiak	Eraikuntza	9	1	0	0	0	0	2010/10/11
Ciabar	Eraikuntza	10	1	0	0	0	0	2010/12/15
Baztangoiza Eraikuntza	Eraikuntza	23	0	1	0	0	0	2010/03/04
J.B. Iturria Eraikuntza	Eraikuntza	10	1	0	0	0	0	2011/04/13
Fco. Javier Iriarte Er.	Erresid. Prib.	51	3	2	0	0	0	2011/01/19
Baztan Ikastola	Naf. Ikastolak	15	0	1	0	0	0	2010/11/07
La Baztanesa, S.A.	Garraioak	18	1	0	0	0	0	2011/04/23
Panificad. Baztanesa	Okindegia	22	0	1	0	0	0	2011/02/27
Promotora Supermercados	Zerbitzuak	15	0	1	0	0	0	2010/20/27
Xorroxin Elkartea	Bulegoak	12	0	1	0	0	0	2010/05/17

BERA	Komenioa	Zentsoa	ELA	LAB	UGT	CCOO	Bertzeak	Iraupena
Aceralia Rotec	Metal Indust	15	0	0	1	0	0	2011/04/03
Berako Udala	Funtzionario	13	3	0	0	0	0	2011/05/14
Composites Gurea	Zur-Industria	55	3	2	0	0	0	2010/10/24
Condesa	Metal Industria	475	5	4	2	1	1	2007/06
Conservas Martiko	Haragi-Indus	131	9	0	0	0	0	2009/04/22

ttipi-ttapa

Orain dela lau urte egin bezala, eskualdean azken hauteskunde sindikalean izandako emaitzak aztertu nahi izan ditugu. Urte honetan inguruko enpresa gehienetan hauteskunde sindikalak izan dira, horietatik gehienek irailetik ekainera bitarteko tartean. Gainerakoak, seguruenik laster egingen dira. Oro har, sindikatu indartsuenei dagokionean, aldaketarik ez, aitzineko hauteskundeetan bezalatsu segituko baitute heldu diren lau urteotan. Aldaketak, hirugarren indarra den UGT sindikatuan nabaritu dira, goiti egin baitu nabarmen. Datuak ematen hasi aitzinetik, azpimarratu nahi dugu lerro hauek idazterakoan eskura genituen datuen arabera egin dugula.


SINDIKATU ABERTZALEAK JAUN ETA JABE

ELA eta LAB sindikatuena da hemengo lantegien ordezkarietza gehiena. Hala zen orain arte, eta halaxe segituko dute. 168 ordezkari sindikal egon dira jokoan, eta guztien artean ELA da ordezkari gehien lortu duen sindikatua. 2003an 81 lortu zituen guztira (%56,6); 2007an, berriz, 90 eskuratu ditu. Ordezkari kopuruan goiti egin arren, portzentaiaren beheiti egin du zertxobait, hiru puntutan, hain zuzen (%53,6). LAB da bigarrena 44 delegaturekin (%26,16). Orain dela lau urte ordezkarien %28a eskuratu zuen. Donetebeko Aparan zurgintza industrian, erraterako, hiru ordezkari berri eskuratu ditu LABek. Bien artean, 134 delegatu dituzte, ordezkari guztien ia %80a.

Sindikatu abertzaleen beherakada, dudarik gabe, UGTren mesederako izan da. Hirugarren indarra izaten segituko du UGTk, baina duela lau urteko emaitzekin konparatuz, sei puntutan egin du goiti: 2003an eskualdeko ordezkarien %6,29 erdietsi zuen, eta orain, %13,1. Bederatzi ordezkari izatetik 22ra egin duen saltoa, Baztan-Bidasoako anbulantzietako langileetan lortutakoa da batez ere, lehenago ez zuelako ordezkariarik, eta orain bortz. Bi indar nagusien murriztea, CCOOk ere somatu du portzentaiari dagokionean. Ez, ordea, ordezkari kopuruan. Laugarren indarra den sindikatu honek lau ordezkariarekin segituko baitu.

Gainerako zortzi ordezkariatik gehienak —orain lau urte bedera-

Eskualdeko datuak Nafarroa Garaia



DATU OROKORRAK

	2003/04/10	2007/07/28
Lantegi kopurua	63	56
Zentsoa (langileak)	3.221	3.481
Delegatuak (osotara)	143	168
ELA	81	90
LAB	40	44
UGT	9	22
CCOO	4	4
Bertzeak (ESK-CUIS...)	9	8

tzi ziren— Baztango Benito Menni erresidentzia pribatukoak eta Lesa-kako Aceralia Transformadosenak dira, hiruna bakoitzak. Azken honi dagokionez, aipatu, ESK-CUISek ordezkar bat galdu duela.

Erran beharrik ez dago zerrenda honetan ez direla eskualdean dauden lantegi guztiak agertzen. Izan ere, le-gearen arabera, sei langile edo gehia-go dituzten lantegietako langileek du-te euren ordezkarriak aukeratzeko es-kubidea. Ez da beti horrela, ordea, sei langile edo gehiagoko lantegi guztiek ez baitute ordezkarri sindikala.

Bertze kasuetan, berriz, langileen ohiko sindikatuak ez duten taldeak antolatzen dira, lantegi zehatz batera mugatzen diren ordezkarri tal-deak, alegia. Hori da, adibidez, Be-rako *Manufacturas Alco* eta *Vercolen* kasua.

ORDEZKARITZA DATUAK LANTEGIKA ETA HERRIKA

ORDEZKARITZA SINDIKALA LANTEGIZ LANTEGI

(2007/07/26)

BERA	Komenioa	Zentsoa	ELA	LAB	UGT	CCOO	Bertzeak	Iraupena
Embalajes Bera	Zur-Industria	6	1	0	0	0	0	2010/11/28
Fundiciones de Bera	Metal Industria	162	7	2	0	0	0	2011/04/18
Jesusen Bihotza Ikastetxea	Ikast. pribatua	14	1	0	0	0	0	2010/12/15
Musika Eskola	Irakaskuntza	9	1	0	0	0	0	2011/05/16
Palmadera	Zur-Industria	27	1	0	0	0	0	2010/12/01
Savera	Metal Indust	159	9	0	0	0	0	2010/03/01
Elkar Tailer Mekanikoak	Metal Indust	39	1	1	1	0	0	2009/10/29
San Jose zahar etxea	Erresidentzia	24	1	0	0	0	0	2011/05/10
Sedenort, S.L.	Metal Industria	38	0	0	0	2	0	2011/05/04
Talleres Zelaia	Metal Indust	19	0	1	0	0	0	2010/10/24
Tecnopet	Kimika-Indus	32	0	2	0	0	0	2009/05/20
Arrago Bide Benta	Merkataritza	10	0	1	0	0	0	2007/10/25

DONEZTEBE	Komenioa	Zentsoa	ELA	LAB	UGT	CCOO	Bertzeak	Iraupena
Ambul. Baztan-Bidasoa	Anbulantziak	112	4	0	5	0	0	2009/05/16
Aparan	Zur-Industria	53	0	3	0	0	0	2011/06/06
Atzeribar	Ostalaritza	15	0	0	1	0	0	2009
Doneztebeko Udala	Funtzionario	6	1	0	0	0	0	2011/04/03
Est. Serv. Kontxa	Gasolindegia	7	1	0	0	0	0	2008/01/28
Menditxuri	Eraikun. mat.	6	0	0	1	0	0	2010/12/27
Sagasetta, Ter. (Kontxa)	Ostalaritza	17	1	0	0	0	0	2011/01/15

ETXALAR	Komenioa	Zentsoa	ELA	LAB	UGT	CCOO	Bertzeak	Iraupena
Maderas Irigoyen	Zur-Industria	8	1	0	0	0	0	2011/05/11

IGANTZI	Komenioa	Zentsoa	ELA	LAB	UGT	CCOO	Bertzeak	Iraupena
ATM	Metal Indust	15	1	0	0	0	0	2008/02/15

ITUREN	Komenioa	Zentsoa	ELA	LAB	UGT	CCOO	Bertzeak	Iraupena
Izarra Eraikuntza	Eraikuntza	8	1	0	0	0	0	2010/10/17

LEITZA	Komenioa	Zentsoa	ELA	LAB	UGT	CCOO	Bertzeak	Iraupena
Leitzako Udala	Administraz	17	0	1	0	0	0	2003/07/02
Leitzako Udala	Funtzionario	4	0	0	0	0	1	2003/11/22
Mankomun. Leitza-Goizuet	Administraz	17	1	0	0	0	0	2007/01/15
Sarriopapel eta Zelul.	Papergintza	443	6	7	0	0	0	2011/05/11

LESAKA	Komenioa	Zentsoa	ELA	LAB	UGT	CCOO	Bertzeak	Iraupena
Aceralia Transf.	Metal Indust	847	6	6	5	1	1+2 ⁽¹⁾	2010/10/10
Ayala Garcia J.D.	Metal Indust	8	0	1	0	0	0	2011/12/15
Exc.Transp. Orsa	Eraikuntza	20	1	0	0	0	0	2010/12/12
Hidro Rubber Iberica	Kimika-Indus	56	2	0	3	0	0	2008/10/02
IBM Global Service	Bulegoak	6	1	0	0	0	0	2011/02/22
Lesakako Udala	Funtzionario	9	0	1	0	0	0	2007/04/18
Sarobe Hnos.	Eraikuntza	7	1	0	0	0	0	2010/11/21
Tanturumairu	Naf.Ikastolak	12	0	1	0	0	0	2010/11/07
Zubiondo jatetxe-sagardotegia	Ostalaritza	11	0	1	0	0	0	2010/12/21

SUNBILLA	Komenioa	Zentsoa	ELA	LAB	UGT	CCOO	Bertzeak	Iraupena
Cedipsa gasolindegia	Zerbitzuak	56	0	2	0	0	0	-

URDAZUBI	Komenioa	Zentsoa	ELA	LAB	UGT	CCOO	Bertzeak	Iraupena
Urdax marmolak	Eraikuntza	10	1	0	0	0	0	2010/10/09

Oharra:

⁽¹⁾ Ordezkarri bat ESK-CUIS-ek eta 2 bertzeak

Lege Gordailua: NA-1324/85
ISSN: 1578-4673
Frankeo Itundua: 34/79
TIRADA: 6.000

ttipi-ttapa aldizkaria

Andutzeta, 12
E-31760 ETXALAR (Nafarroa)
Tfnoa: (+34) 948 63 54 58
Faxa: (+34) 948 63 54 57
www.ttipi.net
info@ttipi.net

Argitaratzailea: ttipi-ttapa fundazioa.
Presidente: Pello Apezetxea.
Kudeatzailea: Joxemanuel Irigoien.
Zuzendaria: Aitor Arotzena.
Publizitatea: Kulturkari, SLU.
Administrazioa: Amaia Goia.
Erredakzioa: Gurutze Pikabea.
Berriemaileak: Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Joseba Urkiola, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Juan Carlos Mortalena, Aitor Ollo eta Fanny Bonnemaison, Nerea Altzuri, Oskar Txoperena, Joseba Olgarai, Nerea Mitxelorena, Aitor Arotzena, Amaia Odriozola, Ainhoa Iratzoki, Maite Oteiza, Jaione Otxandorena, Rakel Amigo, Iratxe Kontsumitzaileen Elkarte...
Imprimategia: Gertu.
Erakunde laguntzaileak: Etxalar, Leizeta, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarte, Bortziritako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria	32 €
Espainia	32 €
Sara (edantegia-okindegia)	40 €
Ipar Euskal Herria	52 €
Europa	52 €
Amerika	110 €
Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Leitza	26 €



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du

• IRAKURLEAK MINTZO •

Ondarreko

atxiloketak

direla-eta

Berriz atxiloketak. Berriz gure senitarteko eta lagunak frantziar eta espainiar indar armatuen atzaparretan. Trantze latza maite dituguentzat eta ingurukoentzat. Bertze behin inkomunikazioa eta honek dakarren erabateko in-defentsioa. Hiru egun, ez abokaturik, ez hurbileko medikurik, esenitartekorik... Dirudienez lasai iragan dituzte, zorionez. Eta zorionez diogu zeren, zoritxarrez lasai iragaitea notizia da gurean. Inkomunikazioa tratatu txar eta torturen aterperik onena baita. Inkomunikazioa eta auzia sekretupean. Sekretupean? Eta nondik eta nola hainbertze informazio hedabideetan?

Guk senitarteko, abokatu eta hurbilekoek zuzenean deus ezin jakin, eta bitartean gure etxeko argazkiak, izen abizenak, eta ez dakigu zer kargu leporatzeak lau haizetara zabalduak. Zertan da errugabetsun presuntzioa? Hori epaiketa mediatikoa da, eta gogor salatu nahi dugu.

Bertzealde, bertze preso bat izanen dugu herrian eta bolada baterako Paris inguruan Euskal Herriko urrutiko kontuko dute. (Joseba Aramburuz Almandoz Maison d'arrêt FLEURY MEROGIS7, Avenue des

Peupliers, 91.705 Ste. Genevieve des Bois). Honek jakina senitartekoei zigor erantsia suposatzen digu, bidaie-tan denbora, osasuna eta dirua joaki baitira.

Bukatzeo guregana elkartasun keinu xumez inguratu diren herritar guztiei eskerrak eman nahi diegu eta bidena-bar beharrezkoa dugun bertzelako elkartasuna bideratzeko kontu korrente zenbakia zabaldu dugula jakinarazten dizuegu.

Berako Euskadiko Kutxan: 3035 0135 99 1351024961

Bortziritako Etxerat

Baztango Udalari

Aurten ere Baztango Udaleko eta Euskal Herriko hainbeste udalerrietako hauteskondeetan gertatu dena lotasagarria izan da. Lotsagarria da 2007. urtean onartu behar izatea oraindik ez dugula demokrazia ezagutzen, eta horrelako gauzak oraindik gertatzen direla mundu honetan, batez ere «lehenengo mundua»-ren parte den herri batean.

Baztango Udaleko alkate eta zinegotzi guztiei hauxe erran nahi diet:

Ideologiatik aparte gauza bat argi dago nirenetan demokraziaren konzeptua ezagutzen duen edozeinentzat, Baztanen eta EHko beste hainbat herrietako

hauteskundeetan gertatu dena ez da demokrazia izan, iruzurra eta lapurreta izan da.

Iruzur honetan parte hartu duzuen artean arrazoi desberdinegatik egin duzuela erranen duzue. Batzuk pentsatzen duzelako ezker abertzaleari botoa ematen diogunok bigarren mailako herritarrek garelako, «ilegalak», «terroristak», «komunistak», «radikalak», eta ironikoki talde demokratikotik at gaudela diozue. Badakit benetan sinesen dituzuela gauza hauek eta zuen ignorantziaren biktimak zarete. Jakin dezazuen zuek orain erabiltzen duzuen eta zuen alderdiek «asmatu» duten ilegalizazioa ez dela gaur goizean asmatutakoa. Istorian maiz erabili den eta gaur egun mundu honetako diktadura guztietan erabiltzen den metodoa dela. Batzuetan emakumeei, besteetan indigenei, zapalduari eta inposatu nahi duenaren kontra egiten duen aunitzei ukatu egin zaio botoa. Azken finean frankismoaren seme-alabak zarete eta ez duzue besterik ikasi. Hala ere beste hainbat inposatzaile eta giza eskubideen zapaltzaile bezela pasako zarete historiara eta historiak ez dizue barkatuko.

Beste batzuk, berriz, pentsatzen omen duzue ezker abertzaleko botoek kontatu beharko luketela baina «ilegalak»

diren bitartean ez duzuela deus egiten ahal eta pena bat dela baina... hor konpon!

Injustiziaren eta giza eskubideen aurkako erasoaren aurkeztu denak baimena ematen du. Zuek eta nik badakigu iruzur honen ezinbesteko konplizeak eta bultzatzaileak izan zaretela eta jarraituko duzuela izaten. Zuen interes pertsonalegatik eta ez herriarengatik egin duzuelako. Herriarengatik baldin bazen benetako demokraziari emango zeniokete lehentasuna eta ez eserleku bero eta soldata goxobati. Azken finean baikoitzak bilatzen dituzue burua eta bere ekin-tzak justifikatzeko arrazoiak. Ziur nago zuek ere bilatu dituzuela, bestela, ez dut ulertzen nola egoten ahal zaretzen zuen buruekin lasai, hala baldin bazaudete behintzat!

Arazoi batzuegatik edo besteengatik bi taldeetako kideek iruzur egin diozue Baztani, eta Euskal Herriaren historiaren kapitulu ilun honen protagonistak zarete, eskutik hartuta gainera.

Harrigarria da nola azkenengo lau urte hauetan bata bestearekin mokoka ibili zaretzen gelditu gabe gai gehienetan. Besteena dena banatzeko momentua ailegatu denean, berriz, agudo jarri zarete ados. Zuenak ez diren botoak, soldadak eta eserlekuak banatzeko orduan

• IRAKURLEAK MINTZO •

ez duzue arazorik izan. Legeak idatzi eta berri-datzki daitezke, baten alde edo kontra egin baina egia bat bada mundu honetan, kultura eta erlijio guztietan, eta haxe da: BEREZA EZ DENA HARTZENDUENALAPURRA DA! Japoniar esaera zahar batek dio: «Lapurari atzendu zitzaion ilargia leihoan», eta ilargirik gabe gau ilunean galtzeko arrisku handia dago, bai Japonen eta bai Baztanen!

**Garbiñe
Elizegi Narbarte**

Kantu Zaharrak

2006ko urriaren 19an, Ttipi-ttaparen *kulturasai*-lean, eta 2006ko azaroaren 2an *Datuak...* sailean publikatutakoa gustatu zitzaidan, kantu zalea izanik: Angel Mariezkurrenataz, bere liburuaz, eta bigarren aldiz azaroaren 25ean Dantxarinear

antolatu zuen *Kantu zaharren Eguna* informazioaren zen. Leiza inguruan ospatzea gustatuko litzaike.

Alferkeria eta motelkeriak utzi eta bereganajo nuen, eta kaxa bat liburuxka utzi zidan. Erabaki berri bat hartu zeukan: bost euroko prezioa jarri behar zela. Kondizio horretan eman zizkidan niri 79 liburu. Hamarreko multzoetan zabaldu nituen Leitzako liburu-denda, elkartea gastronomiko, erretiratuaren elkartea eta abarretan. Horien esker 54 liburuxka berehala saldu ziren eta 25 dabilta oraindik kontuak eman gabe. (Kontuak garbi eta) 270 euro bildutakoak Sunbilla Udalera entregatuak daude.

Barkazio eta zuzenketa eske:

Derrigorrez esan beharra daukat hanka sartze bat egin nuela nire aldetik. Koloreak aterarazi zizkidan konturatu nin-

tzenean: Nik presaka herri guztian zabaldu eta ondoren lasai-lasai hasi nintzen irakurtzen. Eta hara non azaltzen diren kanta batzuk (adibidez Markesaren Alaba, Muñagorriren bertsoak, eta abar) akats ortografiko edo jatorrizko testutik desbideratuak, edo ez euskara zaharrean eta ez batuan idatziak. Orduan konturatu nintzen nik lehendabizi «tiroa bota» eta ondoren «geldi!» oihukatu nuela.

Argitaratze edo edizio gehiago egiteko asmoa dagoenez, (aurki kanta kopuru gehiagorekin eta pentagrama eta guzi), antolatzaileei eskatzen diet hurrengoan zuzenduak azaldu daitezela.

Baina tira, guztian gainetik gogora dezagun esaera: «Nahiz lerro okerrak, Jaungoikoak zuzen idazten du». Nola edo hala, letrak-letra, lehendabizikoa kantatzea da, eta bere doinu eta akordeen

zoramenegozatzea. Eskerrik asko.

**Jose Joaquin Oronoz
Leitza**

Berako bestak eta txozna

Badira urte batzuk Berako bestetan Gazte Asanblada eta Kaxerna Gaztetxearen txozna jartzen dela. Honekin, urtean zehar burutzen ditugun ospakizun nahiz ekin-tza ezberdinetarako dirua bildu eta aldi berean egitarau tiki bat prestatuaz besta partehartzaileak bultzatzea da intentzioa. Aurten ere berdin egiteko asmoa dugu, baina bizilagunekin izandako gorabeheren ondorioz kokalekua Altzateko plazara aldatu beharrean gaudela. Hala ere, gogorazi nahi dugu, kalea herritar guztien dela, eta gure irtiziz, txoznarentzako leku

aproposena beti egon izan den lekua dela (Uraldea kalea, zubi ondoan), horregatik datozen urteetan bertara itzuliko gara.

Aurten, gazte mugimenduko bertze txozna bat ere izanen da Alztaten eta denen artean arratsalde nahiz arratsero joku, ikuskizun, makildantza herrikoia... antolatu-ko ditugu.

Gainera, bigarren urtez Kaxerna Eguna ospatuko da abuztuaren 4an, larunbata. Bazkaria izanen dugu Kaxerna Gaztetxean eta tiketak ohiko lekuetan egonen dira salgai.

Horrela bada, zahar zein gazte, neska zein mutil, ongi pasa bestak eta animatu txoznan lagundu nahiz ekintzetan parte hartzera!!! Gora San Estebanek! Gora Kaxerna Gaztetxea! Gora gazte mugimendua!

**Berako Gazte Asanblada
eta Kaxerna Gaztetxea**



Pinturas Pikabea Molinera

PINTURAK

Esmalteak • Bernizak • Lasurea urpintura • Margo klase guztiak

BONDEX urpintura • Esmaltea eta pintura plastiko ekologikoa

**2.000 kolore baino gehiago lortzen ahal duen makina
10 minututan zuk nahi duzun kolorea**

Zalain auzoa, Aceralia fabrikaren parean • BERA
TEL: 948 630 240 • MUG: 627 622 333

BERA

Alderdi guztiek parte hartuko dute udal batzordeetan

Alkateak dedikazio eskusiboa eskainiko dio Udalari

Amaia eta Ainhoa

Legealdi berrikokolehen batzarrean izendatu ziren udal-batzorde ezberdinetako kideak. Talde guztiak (EAE, EAJ, Aralar, eta EA) batzorde arduradunak izanen dira eta batzorde guztietan parte hartuko dute. Josu Irazoki alkatea (EAE) Mendia eta Ingurugiro batzordearen buru izanen da Santiago Altzuguren (EAJ), Mari Sol Taberna (Aralar) eta Helena Santestebanekin (EA) batera. Alkatea, Jon Abrilekin (Aralar) Kirol Batzordean ere izanen da, nahiz eta honetan lehendakari-rik ez egon. Ogasun eta Kontu batzordeko arduraduna Mari Sol Taberna izanen da, Josu Irazoki, Helena Santesteban eta Santiago Altzugurenekin. Jon Abril Kultura eta besta batzordeko arduraduna izanen da eta Aintzane Artola (EAE), Helena Santesteban eta Isido-

ra Agirrerekin (EAJ) egonen da. Ramontxo Elgorriaga (EAE) Euskara batzordeko arduraduna izanen da Jon Abrilekin batera.

Osasun eta Gizarte gaien arduraduna Isidora Agirrerekin hartuko du, eta Helena Santesteban, Amaia Telletxea (EAE) eta Mari Sol Tabernarekin arituko da. Amaia Telletxeak Herri-Lan eta Hirigintza batzordeko arduraduna du Alfredo Goienetxe (EA), Josu Irazoki, Mari Sol Taberna, Santiago Altzuguren eta Jon Abrilekin. Industria, merkataritza, turismo eta nekazaritzako arduraduna Alfredo Goienetxe izanen da, eta Ramontxo Elgorriaga, Santiago Altzuguren eta Jon Abril arituko dira berekin.

Langileria batzordearen buru Josu Irazoki izanen da, Alfredo Goienetxe eta Isidora Agirrerekin batera, eta Gazteriaren Batzordean Ain-



ARGAZKIAK: JOSE MARI TELLETXEA

Iñaki Irazokirentzat izan da erregulartasunaren saria

2007-2008 denboraldiko Gure Txokoako Lehen mailako Erregionaleko erregulartasunaren saria Iñaki Irazokik eraman du —ezkerreko argazkian—. Lehen ere jasoa zuen sari hau, baita golegilearena ere. Baina oraingoan, azken hau Unai Otazo etxalartarrantzako izan da —eskuinekoan—. Union Txiki taldeari irabazita, lortu zuen Gure Txokoak, azken momentuan, mailari eustea.

tzane Artola buru, Irazoki eta Abrilekin.

Udal Batzarrak hila-bete bakoitzeko hirugarren asteko ortzeguneginen dira, eta egun hori besta eguna baldin bada, bezperan.

Josu Irazoki alkateak dedikazio eskusiboa eskainiko dio Herriko Etxeari eta urtean 35.108 euroko soldata gordina irabaziko du (lantegian irabazten zuena), hamalau ordainketatan banatua.

Udan bisita gidatuak herrian

Udalak, Nafarroako Gobernuako Turismo Sailak, Cederna-Garalurrek eta Leader+ Programak antolatuta, udan Bera-ko karriketan barrena bisita gidatuak egiteko aukera izanen da. *Lilura-tura* izeneko ekimen honen bidaia literario bat eskaintzen du, eta ha-

la, karriketan barna aktore ezberdinek Berako istorio eta kontu bereziak kontatuko dizkiete bisitariei. Ibilbidea elebiduna da, euskaraz eta gaztelaraz. Joan den uztailaren 12an hasi eta abuztuaren 30era arte, Herriko Etxeko Plazatik abiatuta, ortzegunero egingen dira 11:30ean eta 17:30ean. Sarrerak bi euroren truke eskura daitezke. Argibide gehiago Turismo bulegoan.

Sanestebanak baino lehen hainbat ekitaldi

Bestak ailegatzeko egun gutti falta dira eta, urtero bezala, aurreko egunetarako ekitaldi ezberdinak antolatu dira. Basati elkarteak, adibidez, larunbat honetarako 4x4 autoen ikuskizuna prestatu du. Postan izanen da,

16:00etan. Egun berean, Gure Txokoa Elkar-teak eta Nafarroako Herri Kirol Federazioak antolatuta, herri kirol jaialdia izanen da, 19:30ean Eztegarra pilotalekuan. Bi zatitan banatuko da saioa: batetik, proba konbinatuak egingen dira (koxkor biltzea, zaku lasterketa, aizkoara, lasterka eta arpana) eta bertzetik, txinga, harria eta ingudearekin ariko dira. Eta 22:30ean, Josetxo Goia-Arbe eta Estitxu Pinatxok kontzertua eskainiko dute Herriko Etxeko Plazan, eurria eginez gero, Kultur Etxean.

Abuztuaren 1ean, berriz, Imanol Zubieta *Fash* Futbito Txapelketako finala eta 3. eta 4. posturako partidak jokatuko dira Toki Ona kiroldegian. Sari banaketa, ondotik egingen den afarian izanen da.

ERREKALDE
PLATER KONKURTATUAK
PARTIDAK
ONGI PASA BESTAKI
TFN: 948 630 254 BERA

carroha
gostogea duintzea
or du estogiera 25 bago
35780 boko (nawm)
1948 63 08 99
www.carroha.net

ttipi ttapa
☎ (0034) 948 635458

LESAKA

Arcelorreko suteak alarma egoera piztu zuen herrian uztailaren 17an

Produkzioan eragina izan bazuen ere, ez zen zauriturik suertatu

Aitor AROTZENA

Uztailaren 17ko arratsan alarma egoera piztu zen herrian, Arcelor Mittal lantegiko makina batek su hartu ondok.

16. trena kaltetu eta sua piztu zen. Berehala kea herrira hedatu zen eta jendea beldur zen ke-pozoitsua izan zitekeela pentsatuz. Udaltzainek megafono bidez, segurtasun neurri moduan, leihoak ixteko eskatu zieten herritarrei.

Koldo Erkizia alkateak adierazitakoaren arabera, isurketak ez zuen inolako arriskurik eragin herritarrentzat. Errekuntzako gaiak su hartutako makinaren olio eta ura ziren. Halere, badaezpada, leihoak itxi eta etxean geratzeko deia egin zen.

Laminazio trenak kalte handiak jasan zituen eta faktoriaren produkzioan eragina izan zuen. Alarma egoera 21:30ak eta 22:30ak bitartean mantendu zen. Egoera klimatologikoa nahiko ona zen, haize pixka bat

baitzebil, eta ondorioz, kea laster batean desagertu zen.

Arcelor Mittal faktoriako suhiltzaileek, Bera eta Lesakako suhiltzaile bolondresak eta Oronozko parkeko suhiltzaile profesionalak parte hartu zuten suaren itzaltze lanean. Faktorian eta suhiltzaileen artean, zorionez, ez zen zauriturik suertatu.

Irain eskola saritua

Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak antolatutako irakurketa sustatzeko sarietan Irain ikastetxe publikoak bigarren saria lortu du. Sari honekin ikastetxe honek haurren irakurzaletasuna bultzatzeko helburuarekin liburutegian egiten duen lana azpimarratu nahi da. Irain eskolak lau urte daroma irakurketa bultzatzeko proiektua eraikitzen. Orain proiektu hori bera Madrilgo Hezkuntza eta Zientzia Ministerioan aurkeztu da.



ARGAZKIA: AITOR A.

Guttiago falta da 2008ko Sanferminetarako

Eguraldiak sobera lagundu ez bazuen ere, giro ederrean joan ziren Sanferminak. Ortziral eta larunbat gaueko jendetzaren ondotik, lasaiagoak eta herrikoiaagoak izan ziren igandetik asteartera. Sanfermin egunean ohiko ibilaldiak egin zituzten dantzari eta agintariek (ANVko bi zinegotziek, bandera espainola ahoa estaliz zutela). Ekitaldirik hunkigarriena, peñen egunean egin zen. Latsaga peñakoek, ezbeharretan hildako lau kideak (Jon Apezetxea, Xabi Txoperena, Unai Etxepare eta Xabi Saralegi) gogoratu zituzten. Xaturetxearen pareko zuhaitz batean plaka paratu, lore eskaintza egin, aureskua dantzatu eta bertsoak kantatu zituzten.

Saneamendu lanak

Herrian egin beharreko hainbat saneamendu lanetarako proposamenak aurkezteko epea abuztuaren 7an akautuko da. Honela, Aceralia parean, Onin

errekaren ezker aldean (141.524,46 euroko aurrekontua) eta eskuintza aldean (153.509,57 euro) egin beharreko saneamendu lanak; Nabaz auzokoak (216.590,06 euro); Onin errekaren eskuinaldean

Antoiu karrikan egin beharrekoak (110.320,24 euro) eta Otsango hegoaldeko maldakoak (214.597,48 euro) emanen dira. Proposamenak aurkeztekoan aurrekontu hauei BEZa gehituko zaie.



ETXALAR

Bortzirietako bortz atzeritar euskara ikasten ari dira

Euskara Mankomunitatearen ekimena da, eta egunero biltzen dira Kultur Etxean

Joseba eta Nerea

Azken urte hauetan atzeritar ugari etorri dira eskualdera, eta hauek beraien seme-alabak ekartzen dituzte beraien batera. Gazte hauek eskualdean integratzeko arazo bat daukate, ez dute ulertzen gure hizkuntza: euskara. Hori dela eta, Euskara Mankomunitateak *Solas laguna* izeneko proiektua martxan jarri du uda parterako, Bortzirietan dauden hainbat atzeritarrek euskara ikasteko. Julen Zelaieta beratarra da klase hauen arduraduna eta egunero biltzen dira arratsaldean Kultur Etxean euskarari astindua emateko. Uztaile-

an bi orduko saioak izan dituzte eta abuztuaren 3 ordukoak. Momentuz ez da talde sobera handia, bortz lagun biltzen dira, baina denak herrialde desberdinetakoak: Kuba, Ekuador, Errumania, Brasil eta baita ijito etniako bat.

Pinturak Larralde azpian

Azken egunotan Larralde azpiko pareta itxuraldaten ari da. Orain arte zementozko pareta handi bat bertzerik ez zena, herriko gazte baten ekimenez, zementoarekin gris kolorea marrazki koloretsuz ari da apaintzen. Ekimen honen herriko eta inguruko gazteak mugitzea



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Puzgarriak igerilekuan

Uda haurren opor garaia da, eta denbora gehien pasatzen duten lekua igerilekua izaten da, sasoi honi dagokion beroari ihes eginez. Joan den larunbat arratsaldean, uztailaren 21ean, hainbortze gustatzen zaien puzgarriekin jostatzeko eta gozatzeko aukera izan

da asmoa eta denen artean "aldarrikapen muralak" margotzea. Gai ezberdinekoak izanenda mural bakoitza: natura, emakumearen berdintasuna, genero biolentzia, euskara, espezie-moa... Ekimen hau aitzinera ateratzeko dirulaguntza jasoko du materiala erosteko, bai udalletik, bai Bortzirietako Berdintasun Alorretik. Adierazi digutenez, ekimena nahi duen guztiari irekita dago eta mural hauek egiten parte har daiteke.

Igeriketa ikastaroa

Aurten ere igeriketa ikastaroa antolatu dute igerilekutako arduradunek. Hamar egunez luzatuko dira ikastaroak: uztailaren 23an hasi ziren eta abuztuaren 6an bukatuko dira. Aurten lau talde osatu dira, haurren hiru talde eta helduen talde bat. Ikastaroak arratsaldean izanen dira 16:00etan hasi eta 19:15 bitarte, talde bakoitzak 45 minutuko ikastaroa egingen du. Ikastaroaren ardu-

raduna Goizuetako Mirari izanen da bertze urte batez.

Margo erakusketa

Azken urteetan bezala, aurten ere Clara Santamariak margo erakusketa prestatu du Kultur Etxean abuzturako. Uztailearen 27 inauguratuko du eta abuztuaren 19a arte egonen da zabalik, goizetan 11:00etatik 13:00ak arte eta arratsaldean 18:00etatik 20:00ak arte.

USOA
nekazari kooperatiba
ganaduarentzat
pentzurik egokiena
Tel: 948 635 214 - ETXALAR

MERTZERIA
Leñe
LENTZERIA
Tel: 948 637 014
Berrito Plaza, 10 - LESAKA

ARTEKARI TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Eremita aitortpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bidegarritasun planak eta aurrekontuak

artekari@artekari.com

LESAKA: Bittirio, 71-behea - Tel: 948 637 050 - Faxa: 948 637 050
BURLATA: La Viña, 4 - Tel: 948 133 328 - Faxa: 948 133 713

IRU BIDE
Errelogia - Asakia
Bittirio, 3 - LESAKA
Tel: 948 637 127

XATURETXEA
Zabala
JATETXEA
Tel: 948 637 027 - LESAKA

ARANTZA

Udal ordezkariak hurrengo lau urteetarako karguak banatu dituzte

Plenoak hilabeteko lehendabiziko asteazken ilunabarretan izanen dira

Nerea ALTZURI

Udal berria gogoz hasi da lanean. Orain arte, joan den ekainaren 16an kargu hartze ekitaldia egin zenetik, bilerak izan dituzte, eta tartean lan banaketaren berri ere jaso dugu. Beraz, alkate eta zinegotzien arduren berri emanen dizuegu. Nolanahi ere, Udaletik kanpo herritarren taldeak edo batzordeak osatu dira, eta parte hartu nahi duenak alkaterari edo zinegotziei abisatu bertzerik ez du. Horrelaxe gelditu dira, beraz, udaletxeko ardurak: Arantza Aitzine-ratik Ainara Maia alka-teak Bortzirietako Eus-kara Mankomunitatea, Ekonomia eta Gizarte Zerbitzuko arloak gida-tuko ditu; Jaime Iturria zinegotziak Hirigintza, Ura eta Obra Publiko-ak; Aitor Telletxeak Ki-rola, eskola, frontoia eta Kulturako ardurak izan-nen ditu, eta Ainara Amorosek Mendia, Za-



ARGAZKIA: NEREA ALTZURI

Batzordeetan parte hartu nahi duenak udal ordezkariak erran beharko die.

bor eta Osasun espa-ruak.

EAJ-PNVko Vicente Arozena Hirigintza, Gi-zarte Zerbitzuak, Eko-nomia eta Osasun arlo-tan ariko da. Francisco Javier Taberna Mendia eta Zabor arloetan, eta Julio Lukanbio Kirol eta Kultur esparruetan.

Bertzalde, udalba-tzarrak edo plenoak hi-labeteko lehendabiziko

asteazken ilunabarre-tan izanen dira.

Udalekurik ez aurten

Bortzirietako Euska-ra Mankomunitateak an-tolaturiko udalekuak ai-tzinera doaz bertze he-rrietan. Joan den aste-lehenean herriko joste-ta tarte hastekoa ba-zen ere, azkenean bortz-lagunek bakarrik izena

eman dutenez, bertan behera gelditu da aur-tengo herriko jarduna.

Herri kirol saioa

Bestetarako bizpahi-ru aste gelditzen dira, prestaketetan egitarau-rako zenbait ekitaldi an-tolatu nahi dira eta he-rritarak horretan ari di-ra. Besta bezperan nahiz Amabirjin Egu-nean dantza saioak ai-

tzinera eramateko, gaz-tetxoak zein helduxea-goak entsaioetan ari di-ra. Bertzalde, herri kirol saio bat ere egin nahi da, eta parte hartu nahi duenak, badaki! Gogo haundia badago, batez ere gazteen artean, era-kustaldi bat egiteko ani-matzeko deia egin da.

AEKko barnetegiak

Bertze urte batez Arantzako Aterpean AEKko barnetegiak las-terkaldia hasia da. Ia hi-labete igaro den hone-tan, bizpahiru talde izan dira, gehienak 15 lagu-neko taldeak, baina as-te batez Bartzelona eta Madril aldeko euskalte-gietako ordezkariak osatutako 25 laguneko taldea ere izan da. Hu-rrengo hilabetea, bat-z bertze 30 laguneko bi talde izanen dira. Ater-pean betiko zerbitzuak eskaintzen dira eta es-kolan klaseak izaten di-tuzte, teoriarik nahiz prak-tikan euskaraz aritzeko leku paregabea.

ZJ
Zalain
jantzeria - hostala

14 logela bainu eta TBekin
Zalain auzoa z/g
Tfnoa: 948 63 09 67
BERA

bortzirudi
bortzirudi@telefonica.net

KARTELAK - KANISAK - BISTAK - KUPAK (Nahi duzun neurri - diruarekin)
FOTOKOPIA DIGITALAK - BULBOGINTZA - TINTA BILTZEAK - PLANOAK
ENKADERNATZIOAK - PLASTIFIKAZIOAK - PEPEKIN - BULBOG MATERIALAK
DISEÑO GRAFICO - LOGOTIPOAK - ERROTATZAK - IMPRENTA

Ezizaga, 26 Euzkaleko Bidea D - BERA - Tel-Faxa: 948 631 521

LEGARRA

- EGUNKARIAK
- ALDIZKARIAK
- LIBURUAK
- OPARIAK
- TABAKOA
- FOTOKOPIAK
- ENKUADERNAZIOAK
- PLASTIFIKAZIOAK
- FAX PUBLIKOA

ORDUTEGIA:
Zabalduz geroztik: 9:00-13:00
15:00-19:00
Zabalduz geroztik: 9:00-13:00
15:00-19:00
abuztuaren 15etik aurrera

Tfnoa/Faxa: 948 63 70 30 • Albistur, 9 • LESAKA

Pitti
eskalabazioak

Tel: 616 513 491

Mendiak, 34 ZUBIETA

SUNBILLA

Herriko kirolariek emaitza onak lortu dituzte San Ferminetako txapelketetan

Mikel Bertiz arpanean aritu zen eta Unai Bertiz harri altxatzen

Jaione OTXANDORENA

Uztailaren 8an Iruñeko San Fermin jaien barne, Nafarroako arpanlarien txapelketa nagusia jokatu zen, eta Sunbillako Mikel Bertizek bere bikote Xabier Urrutia arraioztarrarekin txapelketa honetan parte hartu zuen. Bortz bikotetatik hirugarren postua lortu zuten. Kana erdiko egurrari 18 korte eman behar izan zizkieten, 14 korte egurra etzanda eta lau zutik.

Bertzalde, bikote honek Iturengo bestetan

ere Euskal Herriko kanporaketan parte hartu zuen. Hasiera batean 13 bikotek izena eman bazuten ere, azkenean 11 aritu ziren. 45 ontzako egurrari 15 korte eman zizkieten arpanlariak, hamar etzanda eta bortz zutik. Mikel eta Xabierrek seigarren postua eskuratu zuten. Hala, urriaren 12an Basaurin (Bizkaia) jokatu den Euskal Herriko finalerako txartela lortu zuten.

Iruñeko San Ferminetan jokatu zen Nafarroako harri jasotzaie-

leen txapelketa nagusia ere. Parte hartzaileek 125 kiloko zilindroari, 113ko kubikoari, eta 100 kiloko bolari ahalik eta altxaldi gehien eman behar zizkieten. Unai Bertiz sunbildarrak zilindroari 18 altxaldi eman zizkion, kubikoari 13, eta bolari 15. Sailkapen nagusian, hirugarren gelditu zen.

Bestetan sokatira

Abuztuaren 11n, plaza berrian, herriko bi talde sokatiran arituko di-

ra, eta zonaldeko bi talde proba konbinatuetan. Proba konbinatuko taldeetan herriko lau gazteek parte hartuko dute: Iñaki Mikelarena, Asier Bertiz, Unai Bertiz eta Mikel Bertizek.

Bizikleta lasterketak

Ekainean Huescan jokatu den *Quebrantahuesos* eta *Treparriscos* bizikleta lasterketetan 8 herritarrek parte hartu zuten eta hauek izan ziren egindako denborak: *Quebrantahue-*

*sos*en, Jon Maritxalarek 6 ordu eta 12 minutu; Xabier Irazokik 6 ordu eta 44 minutu; Gari Larraburuk 7 ordu eta 3 minutu eta Esteban Maritxalarek 8 ordu eta 22 minutu.

Treparriscos lasterketan Sunbillako bertze lauk parte hartu zuten: Iñaki Agesta eta Xanti Arretxeak 2 ordu eta 40 minututan bukatu zituzten lanak. Enrike Irazokik 2 ordu eta 41 minututan, eta Iker Mariezkurrenak 2 ordu eta 53 minututan.



UTZITAKO ARGAZKIA

Xabi Urrutia eta Mikel Bertiz arpanean.

ANSONEA
Ostatua-Jaletxea
Ezkerreko menia eta
anekdotak menu bereziak
Terraza estalia eta Ziberkafea
Foruen Plaza 1 - 948 631 155 - BERA

J. RAMOS
zolak akutxilatzen eta
barnizatzen ditut
Sakelekoa: 637 836 023 - LESAKA

**ttipi
ttapa**
☎ (0034) 948 635458

arkilanaak
ARKITEKTURA ETA HIRIGINTZA
EREDITZEN PROIEKTUAK
URRUNTZEN PROIEKTUAK
ETXEN BERRITZEN
NABARR
KORREKTURA
INFORMAZIOA: 33
SANTO 55 2ºB ELIZKONDA TLF 948 581 931

TU CONCESIONARIO ATV NAFARROAN
AUTOQUADXL
Paseo de la Libertad
51000 TUDOSA
Tlf: 948 581 912
www.autoquadxl.com
SUZUKI
Berria LT-Z400Z Black Edition: 5.749 €

MALERREKA

Larunbat honetan eginen da Burrumba Eguna

Goizean mendi ateraldia eginen da inguruan barna

ttipi-ttapa

Doneztebeko Gazte Burrumba Kultur Taldeak antolatuta, larunbat honetan, uztailak 28, besta eguna izanen da Donezteben. Burrumba Eguna eginen da. Goizerako mendi irteera prestatu dut inguruz inguru, eta 9:00etan paratu dute horretarako hitzordua, autobus geltokian. Mendi ateraldia-
ren ondotik, 12:30ak aldera, zintzurak freskatzeko Arkaitz eta Mirian trikitilariekin eta bertso-lariekin poteoa eginen da ostatueta. 14:00-14:30ak aldean, berri-
bazkaria Santamarian. Arratsalde, trikipoteo-
arekin eta bertsopo-

teoarekin segituko du-
te. Ongi pasatzeko ez
da aitzakiarik falta izan-
nen.

Oizko usategia enkantean

Oizko Udalak en-
kante publikoan paratu
du Ezpeldegiko seiga-
rren postuko usategia.
Hasierako prezioa
11.500 eurotan ezarri
du, eta enkantean par-
te hartzeko, interesa-
tuek prezioaren %5a utzi
beharko dute aldez au-
rretik, behin-behineko fi-
dantza gisa. Goiti jo-
tzeko postura, berriz, 50
eurokoa izanen da. Le-
hen enkantea Herriko
Etxeko bilkura aretoan
eginen da heldu den



ARTXIBOKOA

Ezkurra eta Olazar txapeldun Sanferminetan

Donezteben erremonteak duen afizioak izanen du segidarik, oraindik gehiago, herriko erremontistek txapelak lortzen segitzen badute. Azkena berriki eskuratutakoa da. Koteto Ezkurra eta Patxi Olazar osaba-ilobek uztailaren 14an lortu zuten San Fermin Kider Torneoko txapela. Finalerdietan Altuna I.a eta Etxebe III.ari 40 eta 30 irabazita sailkatu ziren finale-rakoa. Uharteko Euskal Jai Berri pilotalekuan jokaturako finalan, berriz, Zeberio II.a eta Julen San Miguel herritarra izan zituzten aurrez-aurre eta osaba-ilobek 40 eta 37ko emaitzarekin garaitu zituzten. Finala peleitua eta berdinketa aunitzekoa izan zen, abiadura eta erritmo haundikoa, baina azkenean, txapela Ezkurra eta Olazarrentzat.

abuztuaren 4an,
12:00etan, eta esleipe-

na arautzen duen bal-
dintza agiria, Herriko

Etxeko idazkaritzan
egonen da eskuragai.

Donamaria'ko Benta
Erremerba bidez bakarrik: 948 450708

Menu MEXIKAR GASTRONOMIKOA:
25 euro pertsona bakoitzeko
Mexiko ezagutu gastronomikoki
sukaldari mexikorra

2007-06-09
2007-07-14
2007-08-11

Haitzetxea Landa Etxea
AISIALDIA

ZUGARRAMURDI
Telf. 670484567
687421445
www.haitzetxea.es

udana
solazones

LINE-EN-ISO 9001
LAC
NORMA DE CALIDAD
DE CALIDAD CERTIFICADO
SQC-02-0199

Inportaziozko lehen kalitateko bakailu gazitua
Bakailu gezatua eta kongelaturia, erabiltzeko prest

Alkaiaga ind. - Barrieta, 8 - 23 pabiloia - LESAKA - Tfnos: 948 631 536 - Faxa: 948 631 550

MEDIKUNTZA NATURALA
NATUROPATIA

Kontaketa ondategia: 9etatik 12etara eta 14etatik 19etara. Ordus eskatu

ONDORIOETATIK INDARTZEDU:
Diabetes - Aipua - Zizareak - Lerro ezaleko alergia - Buroko mina
Oinen isardie - Prostata, etab...

IKUSMENAREN BERRERAKUNTZA:
Miegia - Bista efferdua - Estrabismoa - Begi larruek kataraktak

GIHARRIE ARAZDAK:
Bixkartzia - Artritis - Erreuma - Artrisia - Lumbalgia - Bihurdurak - etab

Telefona: 943 623 055
San Marcial, 7 - 4 - IRUN

ITUREN

Giro onean joan dira aurtengo herriko bestak ere

Jende aunitz bildu zen herri kirol saioa eta dantza luzea ikustera

Ainara MINDEGIA

Joan dira aurtengo bestak eta denetarik izanda: dantzariak, haurrentzako parkea, pilota partidak, herri bazkaria...

Igandean, uztailaren 15ean, 18:00etan hasita, Euskal Herriko arpanlari txapelketako kanporaketa jokatu zen Iturengo plazan, Nafarroako Herri Kirol federazioak antolatuta, eta ondotik, Joxe Bikondoa-ren erakustaldia. Herriko dantzariak dantza luzea dantzatu zuten eta jendea gainezka egon zen herriko plaza.

Azkeneko egunean herri bazkaria 100 lagun bildu ziren, bazkalondoren zurrakapote edari goxoa prestatu ondotik Arkaitz eta Miriam trikitilariekin ohiko buelta eman zuten herrian barna.

Bereauk atearik itxi ditu

Orain arte herrian bi denda zeuden, baina ekaina bukaeran urte



ARGAZKIA: AINARA MINDEGIA

Erran beharrik ez dago bestetan era aunitzetako ekitaldiak izan zirela.

askotan irekia egon den Bereau janaridendak atearik itxi zituen. Orain denda bakarra geldituta da.

Pink-house barnetegia

Udarekin batera herri batzuetan barnetegiak antolatzen dira, euskaraz hitz egin eta idazteko. Iturenen, ordea, euskaraz ez, inge-

leseaz ikastera etortzen dira. Toki guztietatik hurbiltzen da jendea ingelesez ikasi eta hobetzerara.

Ibintza kultur taldearen kamisetak

Ibintza kultur taldeak kamisetak atera ditu saltzera aurtengo ere. Herriko ostatu eta denda salgai egonen dira nor-

baitek erosi nahi baldin baditu.

Ander Erasun

Ander Erasun aizkolari gaztea herriz herri ibiliko da herri-kiroletan. Horien artean, abuztuaren 15ean Leiztan izanen da, 12:00etatik aitzinera: Arkaitz Olano eta Xanti Olano batetik, Ander Erasun eta Hodei Larretxea bertzetik.

ZUBIETA

Gobernuak erantzuna eman arte alkaterik gabe egonen da herria

ttipi-ttapa

Azkeneko bi urteotan alkate izan den Leire Ortuostek kargua utzi ondotik, alkaterik gabe dago berriz ere Zubietan. Maiatzeko udal hauteskundeetara ez zen zerrendarik aurkeztu, eta uztailaren erdialdean Leire Ortuostek dimisioa aurkeztu zuenez, Nafarroako Gobernuaren erantzunaren zain dade orain herrian. Lerro hauek idazterakoan Herriko Etxean ez zuten oraindik Gobernuaren erantzunik jaso, eta izendatzekoan Iruñetik egin beharko lukete. Alkatetzarako norbait izendatuz gero, hura izanen litzateke alkate, hasiera batean, irailera bitarte. Izan ere, orduan egingen da udal hauteskundeetarako bigarren deialdia.

TOLDOAK salmenta-konponketa-alkakaria-errotulazioa
MOSKITERAK-PERTSIANAK motorizatuak-venecianak
PVCzko LEIHO eta ITXITURAK

Tel-Fax: 948 631 003
 Bidasoa, 66 behea - BERA

Alberto RETEGI
 abokatuak
 948 630 763 - Aitzate, 17 - BERA

BERA Zure inguruko klase guztietako insektuz
 (kaskara, zinkorra, armiarma, kukura...) eta orratel argutuz garbitu nahi baduzu,
 deitu! Termite eta Pipien tratamenduak

goiEKO Industria Garbitasun Produktuak
 Tel: 948 625 587 • Zelai, 42 A • BERA

GOIZUETA

Lantaldeei buruzko desadostasunekin hasi dute legealdia udaletxean

Jon Uitzi izendatu du alkateak alkateorde posturako

Esteban AROTZENA

Lantalde edo batzorde ezberdinetako eta mankomunitateetako ordezkariak izendatzeko antolatutako plenoan ez zuen erabateko adostasunik lortu azken udal hauteskundeen ondorioz eratu berria den korporazioak.

Atal bat bakarra da, mendia, diferentziak sortzen dituen. Lekuona alkateak esandakoaren

arabera, «*zenbait gauza argitu eta gauregun-go egoerari buruzko nolabaiteko diagnosis burutu arte*» ANV bakarrik arduratuko da mendiaz. Horren ondoren, ez omen dute inolako arazorik izaneren honengestioa ere konpartitzeko. Alkateak esandakoa ez zuten ontzat eman Elkartasunakoek, beraiek ere mendiaren ardura hartu nahi dutela argudiatuz. Beraz, zenbait



ARGAZKIA: AITZIBER LEKUONA

Udal ordezkariak ekainaren 16an egindako kargu hartze ekitaldian.

kargu onartu arren, uko egin zioten EAE-ANV-koekin batera lantaldeak osatzeari mendiarena konpondu arte.

Eztabaidak eztabaidda, kargu eta ardura ezberdinak banatuta gelditu ziren plenoan, eta ondorengo hau da zerrenda garrantzitsuena: alkateorde Jon Uitzi; Kontuen Batzordean

MielJoxe Lekuona, Jon Uitzi eta Aitor Mendizabal; Mendian Xabier Etxegia; Hirigintzan Aitor Mendizabal; Kultura-Euskaran Fernando Goia. Mankomunitate eta hainbat erakundetan, berriz, hauek izanen dira Goizuetako ordezkariak: UEMA, Aralar Musika Eskola eta Euskara Zerbitzuan Fer-

nando Goia; Cederna-Garalurren MielJoxe Lekuona; Gizarte Zerbitzuan MielJoxe Lekuona eta Jose Ignacio Alsua.

Esan beharrekoa baita ere, ohiko osoko bilkurak hilaren azkeneko asteartean izanen direla legealdi honetan. Hurrengo, beraz, uztailearen 31n ospatuko da.

ARESO

Herriko lanetan aritzeko bi langile kontratatu ditu Udalak udarako

Herria txukuntzen arituko dira

Juana Mari SAIZAR

Uda honetarako bi langile hartu ditu Udalak. Inemeko zerrendan zeuden Garikoitz aresoarra eta beste leitzar bat dira, eta beste langilearekin batera, herria txukuntzen arituko dira.

JUANJO ATXAK UTZITAKO ARGAZKIA

Baztan nagusi herriarteko Belateko txapelketan

Belatek antolatutako herriarteko pilota txapelketa irabazi dute Baztango pilotariek. Barañaingo Retegi II.a pilotalekuan jokaturako finalen 2 eta 1 nagusitu zitzaizkien Lesakako bikoteei. Maila desberdinetako hiru partida jokatu ziren. Benjaminetan, Elizondoko Iñaki Anso eta Mattin Asiain berroetarrak 18 eta 6 irabazi zieten Lesakako Ubiaria eta Oronozi. Kimuetan, Lesakara joan zen txapela. Aitor Almandoz leharoztarrak eta Dario Trantxe elizondarrak 18 eta 14 galdu zuten Arbelaiz eta Zamorano lesakarren kontra. Partida erabakioarra haurren artekoa izan zen. Joseba Arizmendi oronoztarrak eta Joseba Apeztegia iruritarak 18 eta 15 garaitu zituzten Maia eta Sanjurjo lesakarrak. Nafarroako txapelketa hau maiatzean abiatu zuten, eta bertzeak bertze, Igantzi, Bera, Baztan eta Lesakak parte hartu dute. Finalerdietan, baztandarrek 3-0 irabazi zieten Ultzamako taldeari, eta Lesakak Igantzi izan zuen parez-pare. 2-1 nagusitu ziren lesakarrak.



ARGAZKIA: JOXE ITURZAETA

BKT Torrellanoko nazioarteko txapelketan

Baztango Kirol Taldeko Magna BKT Gazte Taldea kanpoan izan berria da, Torrellanoko nazioarteko txapelketan. Uztailaren 14tik 19ra mundu osoko hainbat talderen aurka aritu behar izan zuen: Valentzia, Eltxe, Suedia, Islandia... Batzuk galdu, bertzeak irabazi, egunero bi partida jokatu zituzten, goiz eta arratsaldean, eta fisikoki gogorra izan arren, gustura itzuli ziren. Laugarren postua lortu zuten baztandarrek, baina horrez gain, baita Kiroltasun Saria ere.

POTTOKI

Partekari Plaza, 5 - 1. solairua
48100 ELIZONDO (Nafarroa)
Tel: 948 581 313
www.pottoki.com
info@pottoki.com

Abuztuaren 15etik
9:00 - 15:00
16:00 - 20:00

**MENDI
ostatua**

Santiago 25
948 580 313
ELIZONDO

**MENDIALDE
Jatetxea**

T: 948 453 060
N: 121-B.65 km
I. AMAIUR

ZUGARRAMURDI

Jostetan aritzeko parke berria estreinatu dute herriko ttikiak

Nafarroako Gobernuak urte hasieran emandako laguntzarekin egin da

Margari eta Koro

Herriko haurrak kontent ditugu, jostatzeko parke berria estreinatu baitute. Urte hasieran Nafarroako Gobernuak emandako diru-laguntzarekin Udalak frontoi zaharrean haurrendako txoko pullit bat prestatu du: bi zabuka, bi balantzin, txirista, laberinto eta joko-anitza. Honekin batera, zolan kautxo ere jarri da, haurrek minik ez hartzeko, eta gurasoetaz oroitzu, bortz aulki paratu dira. Pareta altuek babesten duten zurezko hesia ere egin da, eta orain falta dena karretera aldera doaien pausuan ataka ematea da. Udaberri aldera arbolak ere jarriko omen dituzte.



ARGAZKIA: MARGARI ETA KORO

Hemendik aitzinera herriko gaztetxoek jostatzeko leku berria izanen dute fronton zaharrean. Argazkian, parke berriari azken ukituak ematen.

Etxabe Tailerak


Etxabe Tailerak orain duen eraikinean moldaketa lanak egin behar dituela eta, uztailearen hasieratik tokiz aldatu da: sei hilabetetarako Xaindueneako garagean izanen dugu.



UTZITAKO ARGAZKIA

Zugarramurdi, trikitilarien topagune

Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak urtero antolatzen duen ikastaroak aurten Zugarramurdi izan zuen topaleku. Uztailaren 7an eta 8n egin ziren, Euskal Herriko eta Kataluniako irakasleekin, eta trikitixa munduak izan ditzakeen barietateak eza-gutzeko aukera izan zuten bertaratutakoek.



SARA

XLV. Kontrabandisten Lasterketa agorrilaren 19an korrituko da

laz errekor berria eskuraturik, Fernando Etxegarai izanen da aurtengo faborittoa

Xan HARRIAGUE

Sarako Kontrabandisten XLV. Lasterketa heldu den agorrilaren 19an jokatu da. 17:00etatik aitzinera 38 parte-hartzaileak plazaatik abiatuko dira, eta Larrungo mazeletan diren Zazpi Fagoetatik pasatu ondotik berriz ere plazara itzuliko dira. Lehengo kontrabandistak bezala galtza urdinekin beztitu beharko dira, eta azken kilometroan, lbarsorotik aitzinera, emazteek kiloko pisua eraman beharko dute, eta gizonek zortzikoa. Parte-hartzaileak muga inguruko herrien izenean aritzen dira, orotara 19: Bera, Etxalar, Ezpeleta, Ainhoa, Baigorri, Azkaine, Urdazubi, Luzaide, Ituren, Hondarribia, Zugarramurdi, Senpere, Urruña, Hendaia, Donibane Garazi, Irun, Lesaka eta Elizondokoak.

laz errekor berria jarrita, Fernando Etxegarai beratarra izanen da faborito nagusietariko bat. 9 kilometro inguru dituen ibilbidea 38 minutu eta 36 segundoz burutu zuen. Bigarren postua Igantziko Patxi Irazokirentzat izan zen, eta hirugarrena Berako Joselu Loiarterentzat.

Emazteetan, Iturengo Maika Ariztegi nagusitu zen 52 minutu eta 43 segundoko denborarekin. Bernadette Bideondok bigarren finitu zuen, eta Josune Zabalak hirugarren.

Egun berean eskulan eta produktu gastronomikoen bigarren feria ospatuko da. Lehen uztailaren 15ean iragan zen eta urtero bezala, eguraldia lagun jende anitz ibili zen postuz postu. Guztira 29 izan ziren, gasna eta arno saltzaileak, fruitu saltzaileak, argazkilariak, larrua lantzen dutenak eta dekoraziorako apaintzaileak saltzen... Tartean herriko lau postu: Harpeak gasnategia, Albistur gasna saltzailea, Leizagoien argazkilaria eta Olhain Ikastola taloak saltzen.

Udako erromeriak

Urtero bezala herriko elkarte nagusiek erromeriak antolatu dituzte. Joan den larunbatean, Zazpiak bat dantza taldeak berea ospatu zuen, errugbi taldearena agorrilaren 4an izanen da, eta pilota elkartekoa hiru aste beranduago, agorrilaren 25ean.



ARGAZKIA: XABI BERRUET

Uztailleko eskulan eta produktu gastronomikoen feria joan den igandean zortzi ospatu zen.



ARGAZKIA: XABI BERRUET

Ezkontza faltsua

Gaztetxeak antolatuta ezkontza faltsua egin zuten Sarako gazteek uztailaren 7an. 40 bat lagunek giro ederrean pasatu zuten eguna, eta ez zen musika eta umorerik falta izan.



ZOSKETA

“badakit”
mahai jolasa

TTIPI TXARTETELAREKIN beti irabazten da !

Zozketan parte hartzeko
deitu eta eman zure izena

948 63 54 58ra

SENPERE

Herriko saihesbidea ezin izanen da egin Luberriko urtegiko lanak bururatu arte

Akademiako ikurra Bente jaunarentzat Arretxean egindako lanagatik

Franck DOLOSOR

Udan 18 000 ibilgai-lu dabilta egun guziz herriko karrika nagusian.

Autoek eta kamiunek arrabots haundia eta trabak sortzen dituzte oinezkoentzat eta herri-arrantzat. 2008an saihesbidea eginen da lbarrungo bidea eta Ama birjinaren itzulbidea elgartzeko, baina Paueko prefeturak jakinarazi duenez, hori ezinezkoa izanen da Luberriko urtegia egin arte. Bi zubi berri eraikiko dituzte eta horiek kalterik jasan ez dezaten, hobe izanen da Luberriko urtegia bururatuaz itatea uholdeen indarra ttikitze.

Bertzalde, Akitania-ko Lurralde Kontseiluak 818 130 euroko diru laguntza bozkatu du Urdazuri ibaiaren herrien arteko sindikataren alde Luberriko urtegia egiteko. Laguntza hune-kin

urtegiko gastuen %25 bere gain hartuko du Alain Rousset sozialistak gidatzen duen lurralde gobernuak.

Gisa berean, Europak 450 000 euroko laguntza gehigarria emanen dio Luberriako proiektuari. Paueko prefeta ere lan eta lan ari omen da Frantziako estatutaren laguntza haundia izan dadin.

Dantxariako bidean egiten ari den urtegi huren xedea uholdeen eragina gutxitzea da. Egitasmoak hamar milioi euroko gastua sortu du.

Lanak aurrekontu osoa izan gabe hasi ziren baina, pixkanaka-pixkanaka Senpererak heltzen ari dira laguntzak.

Bente Jaunari Akademiako oroigarria

Udan bakantzetaz go-

zatzen dute herriko gazteek, baina eskolak utzi aitzinetik egun haundia izan zuten Arretxea kolegioan. Hezkuntza akademiako ikurra eman zioten Jean-Claude Bente azken 22 urtetan

Arretxea kolegioko zuzendaria izan denari. Ikasleek aureskua dantzatu zuten urteetan eman duen laguntza eta izan dituen errespetua eta entzutea eskertze-ko.



STUDIO DE LA NIVELLE

Amotzeko bestak

Amotzeko bestak ederki ospatu dira aurten ere besta komiteko gazteeri esker. Musikaz gain, kirolak ere toki zabala izan zuen eta aurten ere larunbat arratsaldeko lasterkaldiak jende multxo ederra bildu zuen.

AZKAIN

Abuztuaren 15etik 19ra herriko bestak

ttipi-ttapa

Bertze herri aunitzetan bezala, Azkainen ere abuztuaren erdialdean izanen dira bestak, 15etik 19ra. Halere, aitzineko egunean, hilaren 14an, triatlloi lasterketa eginen da 14:00etatik aitzine- ra. Bortz egun iraunen dute besta hauetarako egitarau zabala prestatu dute: musikariak, dantzariak, kontzertuak, erakusketak, pilota partidak... Halere, egun haundia lehen- dabizikoa izanen da, 15a. 10:00etan meza izanen da, eta ondotik, dantzari eta musikarien txanda izanen da. Kontzertuei dagokienez, bertzeak bertze, Entzun taldea, Sedna, Otsoak, BKB., Show Bizo Band, Kauta eta Koloka entzuteko aukera izanen da. Patxi eta konpainia mutxikoak ere herrian egonen dira larunbatean. Guztientzako ekitaldi ugari, beraz, besta on batzuk igarotzeko.

ZOANSA

MARKA GUZIZEN KONPONKETA

Banarta: 2 - Alkalaga Industrialea
LESAKA (sarrera Beratik)
Tel: 948 625 555 - Fax: 948 625 505

Logos: SEAT, VW, HYUNDAI, AUDI

Landibar ZENTRO KOMERTZIALA

300m perfume markarik ezagunenekin, usain onak, kosmetikoak...
Euskal Herriko preziorik hoberenak

EGUNERO IREKIA

Tel: (0034) 948 599 400 - URDAZUBI



EZKONTZAK

Fernando Jose Romero Muñoz eta **M^a Emma Salazar Galarregi**, Cordoba eta Berakoa, uztailaren 9an Beran.

Aitor Martin Serrano eta **Ainhoa Fagoaga Anso**, Irungoa eta Berakoa, uztailaren 7an Beran.

Pedro M^a Pardo Alonso eta **Nadida Wopelmann Picher**, Donostiakoa eta Irungoa, uztailaren 7an Beran.

Santiago Belarra Telletxea eta **Elixabete Arrieta Agirrezabal**, Donamariakoak, uztailaren 11n Donamarian.

Jose M^a Baraibar Gogortza eta **Josune Oiartzabal Baraibar**, Leitzakoak, uztailaren 12an Leitzan.

Felix Espelosin Etxeberria eta **Miren Karmele Urretabizkaia Arregi**, Sunbilla eta Donostiakoa, uztailaren 7an Sunbilla.

Xabier Lazkano Mariezkurrena eta **Lurdes Altzuri Ibarra**, Leitzeta eta Sunbilla, uztailaren 14an Sunbilla.

Felix Altzate Sarratea eta **Mirian Goienetxe Etxarte**, Bera eta Elizondokoa, ekainaren 30ean Elbeten.

SORTZEAK

Hurritz Antzizar Senper, Berakoa, uztailaren 2an.

Ander Telletxea Ariztegi, Iturengoa, uztailaren 5ean.

Urko Rekarte Agirre, Donamariakoa, uztailaren 11n.

Nahia Jokine Pumar Iturriotz, Lesakakoa, uztailaren 7an.

Maitane Erkizia Arburua, Lesakakoa, uztailaren 4an.

Lorea Bertiz Aranburu, Lesakakoa, uztailaren 6an.

Yarina Margarita Burga Cahuasqui, Leitzakoa, uztailaren 2an.

Naroa Mariezkurrena Alduntzin, Leitzakoa, uztailaren 4an.

Ainara Sagastibeltza Alduntzin, Leitzakoa, uztailaren 3an.

Janitz Sagastibeltza Bengoetxea, Leitzakoa, uztailaren 10ean.

Ane Zelaieta Indakoetxea, Sunbillakoa, ekainaren 29an.

Hodei Gastesi Etxebeste, Sunbillakoa, maiatzaren 30ean.

Jon Ibarra Olaetxea, Sunbillakoa, uztailaren 9an.

Uxue Bikondo Arretxea, Irurikakoa, ekainaren 29an.

Mikel Bailon Iturralde, Elizondokoa, ekainaren 30ean.

Iker Soarez Lertxundi, Elizondokoa, ekainaren 29an.

Maria Dagraça de Oliveira Pinto, Elizondokoa, ekainaren 20ean.

Oihan Aleman Azkarraga, Irurikakoa, uztailaren 11n.

Aimar Fernandez Bidegain, Arizkunga, uztailaren 13an.



HERIOTZAK

Francisco Javier Zabaleta Azpiroz, Leitzakoa, uztailaren 6an, 75 urte.

Jose Juan Zarra Salaberria, Igantzikoa, ekainaren 29an, 64 urte

Gregorio Malda Irigoien, Urdazubikoa, uztailaren 9an, 85 urte.

Jose Yanci Iturria, Berakoa, uztailaren 12an, 87 urte.

Felix Etxeberria Etxenike, Arizkunga, uztailaren 11n, 95 urte.

M^a Asuncion Martinez Sanchez, Elizondon, uztailaren 12an, 88 urte.



Grupo Tanatorio Taldea
IRACHE
Maldaerreka S.L.

24 ORDUKO ZERBITZUA
BEILATOKIAN ETA ETXEAN

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA
IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

Bera 948 63 74 04
SAN JOSE BEILATOKIA

Doneztebe 948 63 74 04
SAN PEDRO BEILATOKIA

Elizondo 948 58 19 59
FUNERARIA BAZTAN
TANATORIO BAZTANDARRA

Leitza 948 63 74 04
LEITZAKO BEILATOKIA

Lesaka 948 63 74 04
LESAKAKO TANATORIOA

HERRI KIROLAK

Nafarroako hainbat txapelketa erabaki dira Iruñeko San Ferminetan

Gizonezkoen txingatan Larretxea eta Sukuntza kaleratuak erretxina erabiltzeagatik

G. P.

Azkeneko urteotako ohiturari eutsiz, Nafarroako Herri Kirol Federazioak antolatuta herri kirol saio andana jokatu ziren Iruñeko San Ferminetan. Horietatik aunitz Nafarroako txapelkunak erabakitzeke baliagarriak izan ziren. Eskualdeko kirolariek ere ez zuten hutsik egin, eta emaitza onak eskuratu dituzte.

Lehen mailako arpana txapelketan, Arraiozko Xabier Urrutia eta Sunbillako Mikel Bertiz hirugarren gelditu ziren. Iraiozko Josetxo eta Iñaki Barberena anaien, eta Oier Aizkorbe eta Jose Luis Cano Berriozarko bikotearekin gibeletik. Anizko Andoni Irigoien eta Arraiozko Josetxo Telletxea laugarren sailkatu ziren.

Kadeteen mailan eskualdeko ordezkariak zabala aritu zen, Basaburuako lau bikote: Zigako Mikel Igoa eta Anizko Gabon Gamio, Berroetako Beñat Garxitorena eta Asier Gamio, Berroetako Andoni Barrenetxe eta Iruriko Egoitz Prim eta Iruñeko Jose Ignacio Iribarren eta Unai Apeztegia. Hain zuzen, azken hauek izan ziren eskualdeko lehenak. Sailkapen nagusian hirugarren gelditu ziren.

Nafarroako harri-jasotzaile txapelketan, Patxi Larretxea arantzarrak ez zuen hutsik egin aurtan ere, eta berak



ARGAZKIA: GOIZALDE URDANPILLETA

Lehen mailako bikotekako txapelketan aizkolariak lehian, tartean Donato Larretxea arantzarra, Jose Luis Barberena lagun duela.

jantzi zuen Nafarroako txapela. 5.737,5 kilo jasota alde tikiak —13 kilo baino guttiago— kendu zion Josetxo Urrutia leitzarrari, baina bera izan zen nagusi. Ezustetik ederrenetakoa eman zuena, ordea, Unai Bertiz 22 urteko sunbildarra izan zen. Hirugarren amaitu zuen, baina bolarekin bera izan zen onena.

Lasto altxatzen lau igantziarrek parte hartu zuten, eta alde tikiarekin irabazi zuen Iñaki Bereauk. 21 altxaldi egin zituen. 19 altxaldirekin —20.a hiru segundutara egin zuen— Xabi Sein gelditu zen bigarren. Altxaldi kopuru bera egin zuen Oskar Telletxea ere, baina 20.a lau segundutara jaso zuen. Carlos Sein laugarren

gelditu zen (16 altxaldi).

Aizkolarietan ere izan genuen hemengo ordezkariak. Lehen mailako bikotekako txapelketan Donato Larretxea eta Jose Luis Barberena bigarren izan ziren.

III. mailako aizkolarien kanporaketan 30 urte ingurukoak egon arren, 17 urteko lauk eta 18 urteko batek lortu zuten Etxalarren abuztuaren 15ean jokatu den finalerako txartela, horietatik lau gure eskualdekoak. Oihan Larretxea beratarra izan zen azkarrena. Minutu eta erdiko alde kendu zion bigarren sailkatu zen Arkaitz Olano leitzarrari. Garikoitz Larretxea arraizotarra laugarren gelditu zen, eta Ander Erasun aurtiztarra bosgarren. Horiez gain,

Beintza-Labaiengo Alejandro Mindegia eta Pablo Elizondok, Aresoko Asier Pellejerok eta Urrozko Paul Castrok ere parte hartu zuten.

Emakumezkoen txingako txapelketan ere aritu ziren hemengo kirolariak: Narbarteko Esther Iriarte, Lesakako Santa Sousa eta Miren Almandoz eta Iturengo Maika Ariztegi. Lehena Iriarte izan zen, 15 plaza eginez. Bigarrena, berriz, Santa gelditu zen.

Gizonezkoen txapelketa zalapartatsua izan zen. Izan ere, lau partidetatik hiru kaleratu egin zituzten eskuetan erretxina erabiltzeagatik, tartean Patxi Larretxea arantzarra eta Miguel Angel Sukuntza leitzarra. Azkenean inork ez zuen txapelik jaun-

tzi. Halere, arantzarrak jaun eta jabe dela erakutsi zuen, 16 plaza eginez. Sukuntza 15ekin gelditu zen, eta Julen Txoperena igantziarra laugarren. Kanporatutakoak hagitz haserre ageri ziren, «*beti erretxina erabili izan dela*» erranez, eta «*honek erabaki bat hartu behar bada, kirolariekin hitz egin behar dela*» argudiatuz.

Motozerra IX. txapelketan lautik hiru eskualdekoak ziren, baina azkenean Berasainera joan zen garaipena. Miguel Angel Mariñelarenak irabazi zuen. Ondotik: Oierregiko Esteban Arruti, Arizkongo marin Agerrea eta narbarteko Enrique Jaukioa gelditu ziren.

Ingudeen txapelak nahitaez gurera etorri behar zuen, eta halaxe izan zen. Igantziko Xabi Sein eta Carlos Seinentzat izan ziren lehen bi postuak, 92 eta 86 altxati egin baitzituzten, hurrenez hurren. Leitzako Lazaro Bujan eta Labaiengo Josetxo Urrutia izan ziren ber-tze bi partaideak.

Nafarroako hainbat txapel eta kanporaketa erabakitzeaz gain, bertzelako erakustaldiak ere egin ziren. Hala nola, Joxe Bikondoak bere saioa eskaini zuen, baita Mikel Saralegik harri-alkxatzen, eta aizkoran Leitzako Jon Rezondok eta Doneztebeko Juan Telletxeak ere.



Jeannie TELLETXE
Lesakako mendi bizikleta zalea

UTZITAKO ARGAZKIA

«Ez zaizkit txapelketa neurtuak gustatzen, eta proba bukatzea zen nire helburua»

• Jeannie Telletxea 42 urteko lesakarrak Bardenas Extreme mendi bizikletaren X. edizioan parte hartu zuen joan den uztailaren 1ean, bertze hainbat lesakarrekin batera.

• 1.500 parte-hartzaile inguru izan ziren, eta emakumezkoetan laugarren sailkatu zen Jeannie, eta adinaren arabera, lehen postuan gelditu zen. Halere, txapelketak ez dituela batere gustoko aitortu digu.

• Lehenago bizikletan gehiago ibiltzen zela erran digu, orain lana eta haurrak tarteko, ibiltzeko denbora aunitzik ez baitu.

Gurutze PIKABEA

Pozik geldituko zinen Argedasen, Bardenas Extreme mendi bizikleta proban egindako lanarekin, ez?

Bai hagitz kontent. Ez da konpetizio bat eta ni horrexegatik atera nintzen. Hasiera batean asmoa atera eta proba bukatzea zen. Bidean ez genekien gibeletik gindoazen edo erdian, hasieran ez gindoazela bagenekien, baina gure helburua bukatzea zen. Tarte guztian aditu genituen jendearen animoak, batez ere emakumezkoen aldekoak, gutti ginelako eta hori eskertzekoa da. Azken aldera, «*animo, laugarrena zarela!*» oihuak aditzen nituen. Hagitz gustura akautu nuen, eta eguraldiak ere lagundu egin zigun.

100 kilometro inguru dira. Orografia ala eguraldi beroa, zein da gogorrena?

Proba gogorra da bai, baina batez ere hauts aunitz dagoelako. Halere, batez ere eguraldiak egiten du go-

gorra saioa, orografia aldetik gogorra da mendian eta bidexketan barrena ibili behar delako, baina *extreme* izena eguraldiagatik darama. Hagitz temperatura altuak izan ohi dira, 40 gradu inguruan. Guk, ordea, suertea eduki genuen, goibel zegoen eta eguzkiak ez zuen berotu. Primerako eguraldia atera zen eta bide guztian hagitz gustura ibili nintzen.

Espero zenuen emaitza hori lortzea?

Ez ez! Nire asmoa proba bukatzea zen. Nik ez dut inoiz horrelako probatan parte hartu. Betidanik aunitz ibili naiz bizikletan, baina jende aunitz egoten den horrelako saio batean parte hartzen nuen lehendabizi-

«Ahal dugun neurrian ibiltzen naiz bizikletan. Haurrekin ere egon nahi izaten da eta norberaren zaletasunak banatu behar dira»

ko aldia zen. Niretzat zerbait berria zen, ez nekien nola ibili beharko nuen hainbertze jenderen artean, non koku eta ez nola ibiliko ote nintzen ere... Lesakatik emakumezko bakarra nintzen baina lesakar koadrila bat joan ginen harat, eta proba erdi aldera bukatu genuen.

Zenbateko dedikazioa eskaintzen diozu mendi bizikletari?

Ahal dugun neurrian ibiltzen gara. Haurrak izan baino lehenago aunitz ibiltzen ginen, bizikletan ez bazen mendian, baina orain guttiago. Haurrekin ere egon nahi izaten da eta norberaren zaletasunak banatu egin behar dira.

Berriz egiteko moduan bai?

Ez naiz batere lehiakorra eta ez zaizkit txapelketak gustatzen, baina aitortu behar dut Bardenas Extreme aunitz gustatu zitzaidala, hain zuzen, horregatik, ez delako konpetizio neurtu bat. Prestatzea ere polita da, azken batean, bizikletan ibiltzeko aitzakia bat da eta gustuko baduzu...

PILOTA

Leitzak jantzi du hirugarrenez Nafarroako Herriarteko Pilota Txapelketako txapela

Bide batez, Euskal Herriko txapelketarako txartela lortu du

G. P.

Leitzako Aurrerak Nafarroako Herriarteko pilota txapelketaren 38. edizioa irabazi du, eta hala, txapelketako bere hirugarren txapela jantzi. Uztailaren 7an jokatu ziren Iruñeko Labriten aurtengo finalak, eta jendez gainezka zegoela, zazpi tantoko aldearekin atera zen txapeldun Leitzak.

Espero bezala, alebinetan eta infantiletan Leitzak ez zuen inolako arazorik izan Uharteko bikoteak garaitzeko. Alebinetan, Leitzako Mikel Sagastibeltzak eta Anartz Olanok 18 eta 2 irabazi zieten Uharteko Luis Sanchez eta Aritz Goñiri. Infantiletan, tanto bakarrarekin utzi zituzten Uhartekoak. Jose Ramon Aldaregia eta



MIKEL IRIARTEK UTZITAKO ARGAZKIA

Jon Jaunarena leitzarrek 18 eta 1 irabazi zieten Igor de la Fuente eta Ander Minari.

Gazteen mailan eta seniorretan Uhartekoek irabazi zuten. Gazteen, Oian Alduntzin eta Aitor Goikoetxea leitzarrek 22 eta 1 galdu zuten Imanol Garralda eta

Mikel Beroiz uhartearen kontra. Seniorretan, berriz, Aurrerako Mikel Olazabal eta Mikel Iriartek 22 eta 17 galdu zuten, Uharteko Miguél Angel Errea eta Iosu Linzoainen aurka.

1973an jantzi zuen Leitzak txapelketa honetako azken txapela,

eta 1972an lehena. Azken finala, berriz, 1981ean jokatu zuen, baina ezin izan zuen Larraungo taldea garaitu. Aurten, ordea, Nafarroako Herriarteko Pilota Txapelketako txapela herrian du, eta Euskal Herriko txapelketan aritzeko txartela ere bai.

PILOTA

Txarutako pilotariak hasiera ona eman diote 2007ari

Baztan txapeldun ttikietan, Nafarroako Herriartekoan

G. P.

Urte erdia joana den honetan, Txaruta Pilota Elkartek aurten ere sailkapen onajaso due-la erran daiteke.

Euskal Herriko klub arteko txapelketan, Garikoitz Juanenea saldiastarra eta Patxi Barberena iruritarra azpitxapeldun gelditu ziren.

Zizurreko banakako txapelketan, kimuetan Arkaitz Untxalo iturndarra txapeldun izan zen; haur mailan Joseba Apeztegia iruritarra azpitxapeldun, eta Unai Barberena herritarra, kadete mailan txapeldun. Garikoitz Juaneneak gazteen mailan txapela

jantzi zuen, eta Gaizka Otxandorena almandoztarrak helduetan.

Elgoibarren Iruritarako Xabi Arraztoa txapeldun atera zen. Espainiako klub arteko txapelketan ere parte hartu zuen Arraztoak, baita azpitxapeldun gelditu ere. GRABN torneoan txapelduna izan zen, eta Errege Kopan azpitxapeldun.

Belateko klub arteko txapelketan, Elizondoko Elur Meoki eta Ibon Irazokik ttikien B mailan txapeldun suertatu ziren, eta Oronozko Enaitz Anso eta Iker Espelosin sunbildarra umeen A mailan azpi-

txapeldun. Pello Arretxea (Irurita) eta Lander Mindegia (Oitz) kimuen B mailan txapeldunak; Ugaitz Elizalde eta Arkaitz Untxalo kimuak A mailan txapeldun; Beñat Oronoz lesakarra eta Mikel Kanpo iturndarra kadeteak A mailan txapeldunak eta Aritz Juanenea saldiastarra eta Urrozko Imanol Juanena kadeteen A mailan irabazle.

Zaraitzun Asier Bertiz eta Sergio Oskoz elizondarrek umeen mailan txapela eskuratu zuten, eta Enaitz Anso eta Iker Espelosin, azpitxapeldun gelditu ziren. Iñaki Azpiroz iruritarra eta



Andoni Espelosin sunbildarra kimuen mailan txapeldunak atera ziren, eta haurretan, Gorka Altuarte almandoztarra eta Mattin Apeztexea oronoztarra.

Irurtzunen —argazkian—, Enaitz Anso eta Iker Espelosin txapeldunak izan ziren umeen B mailan, eta Elizondoko Iñaki Anso eta Mattin Asiain berroetarara azpitxapeldun A mailan. Elizondoko Dario Trantxe eta Iturengo Ugaitz Elizalde txapela lortu zuten kimuetan, eta Joseba Arizmendi

oronoztarra eta Joseba Apeztegia iruritarra haur mailan.

Belateko Herriarteko Txapelketan ttikietan txapeldun atera zen Baztan (ikus 38. orria).

Barañainen, Elizalde eta Untxalo txapeldun atera ziren kimuetan; Xabier Madariaga urroztarra txapeldun, eta Garikoitz Juanenea eta Patxi Barberena gazte mailan azpitxapeldun.

Etcharri-Aranazko torneoan, berriz, helduetan Gaizka Otxandorena finalean aritu zen, eta azpitxapeldun gelditu.

AGENDA
egunez
egun

Gertaera guztiak ikusteko
begiratu: www.ttipi.net
(agenda)

ERAKUSKETAK**ELIZONDO**

Uztailaren 21etik irailaren 2ra, Tomas Sobrinoren pintura erakusketa Arizkunenean.
Ekainaren 22tik abuztuaren 31ra, Juan Gorritiren eskultura erakusketa Arizkunenean.

ARIZKUN

Uztailaren 1etik abuztuaren 31ra, Teresa Lafraguaren pintura erakusketa, Santxotena Parke Museoa.

SENPERE

Abuztuaren 20tik 26ra, Ostopeko Artea izeneko erakusketa Oxtikenean.

IKASTAROK**BERA**

Abuztuaren 2tik 26ra hiru clown ikastaro egingen dira Alkebera landetxean. Ramon Albisturrek emanen ditu, 45 ordukoak.

ELIZONDO

Abuztuaren 3tik 31ra, Baztango paisaiei buruzko ikastaroa. Astelehen, asteazken eta ortziraletan. Irakasleak J. M^a Apezetxea eta T. Sobrino. Prezioa 90 euro.

SENPERE

Uztailaren eta abuztuaren, Landetako behiei buruzko ikastaroa, Senpereko Gazteluan, 21:30ean.

FERIAK**ELIZONDO**

Abuztuaren 11n eta 18an, Baztan-Bidasoako artisauen feria Foruen Plazan.

MENDI ATERALDIK**SUNBILLA**

Abuztuaren 5ean, Irumugarrietara mendi ateraldia.

Abuztuaren 16an, Monte-Perdido-Cilindro de Marborera ateraldia.

TELEBISTAKO TXOKOA

‘BIDAIK’ SAIOA TTIPI-TTAPA TELEBISTAN

Etxetik mugitu gabe munduan barna bidaiatu

Aitzinekoak galdu bazenituzten, heldu direnak ez itzazue galdu. Uda honetan, *Bestaz Besta* saioa ematen ez denetan, **TTIPI-TTAPA TELEBISTA** *Bidaik* programa eskaintzen ari da, Xan Harriague lan-kideak gidatuta. Izenak berak erraten duen bezala, munduko herri ezberdinetako informazio eta bitxikeriarik berezian kontatuko dira eta kasu guztietan, eskualdeko lagun baten ahotik izanen dugu horren berri. Maroko, AEB, Kaukaso, Kroazia, Australia... Hainbat dira dagoeneko bisitatu ditugun txokoak, baina oraindik aunitz dira mundu zabalean gelditzen zaizkigunak. Berriki Aitziber

Almandoz aranztarrarekin Nikaragua bisitatu genuen. Hemendik aitzinera, berriz, Gorka Retegi beratarrarekin Ingalaterrara joanen gara; Mariano Eseberri elizondarrarekin, Idoia Hernandorena legasarrarekin eta Eider Zapirain gipuzkoarrarekin Indonesiako txoko preziatuak bisitatuko ditugu; Estitxu Elgorriaga lesakarra eta Eider Salegi oriotarrarekin, berriz, Holanda ezagutzeko aukera izanen dugu; baita munduko bertze txoko bat ere. Eta horrela eskainiko du **TTIPI-TTAPA TELEBISTAK** bortz sortako *Bidaik* saioa uda honetan. Guztiak ere ortziraletan izanen dira.

DISKAK

Oskorri Banda Band

OSKORRI

ELKAR, 2007

Musikaren ibilbidean beteranoa izatea gutti batzuen lorpena da. Bilboko Bandak aspaldian Oskorri taldeari luzatutako gonbitea hartzen du taldeak oraingoan bere 35. urtemuga betetzen denean, proiektu komun atsegin, berriazale eta erakargarri honetan bat egiten dutelarik. Hori dela eta, iazko Bilboko Bandaren Gabonetako Kontzertua, Oskorri taldearen laguntzaz, gure historiako folk talderik esanguratsu eraginkorrenaren errerperitorioari errepaso ludiko eta alaia izan zen. Haren email-tza, entzuleriarik zabalenaren gogoak asetzeko modukoa den disko honetan, Oskorrik garai zein sentsibiltate ezberdinetako 13 kantu diriratsu eskaintzen ditu, baita, bideoklip bat ere. «*Gu gaituzu Oskorri. Zuri, berde eta gorri. Umorez gara etorri zuen guztion pozgarri*».

BASERRIA

DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**
(Ekainaren 22tik ekainaren 29ra bitarteko prezioak)

ZERRIKIA

Zerrikumea
(19 kilo): 26,00 € (=)

Zerri gizena
1,240 € kiloak. (0,020)

Zerramak:
0,400 € Kg/bizirik. (0,010)

BEHIKIA

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanakal
Extra 3,71 (=)
1.koa 3,40 (=)
2.koa 3,14 (-0,03)
Urruxak: €/kg. Kanakal
Extra 3,83 (=)
1.koa 3,52 (=)
2.koa 3,23 (-0,03)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze tikiak
(15 egun ingurukoak):
Aretze mestizoak:
urruxak 170,00 (-20,00)
idixkoak 242,00 (-7,50)

Aretze nabarrak:
urruxak 130,00 (-20,00)
idixkoak 160,00 (-7,50)
Zaldikoak: €/k
Sortuberriak: 2,95/3,08
Zaldi-behorrak: 1,73/1,93
Bildotsak: €/k
6-8 kilokoak: 5,80/6,40
8-10 kilokoak: 4,80/5,50

Baztanentzat aberastasun iturri den proiektua



Artesiagako Magnesita da MAGNAk Erdizen magnesita ateratzeko duen proiektu berria. Baztan osoarendako motore ekonomikoa da, ingurumena errespetatzen duen proiektua eta Baztango jendeentzat etorkizun iraunkorra garantizatzen duena.

Proiektu honek aukera ematen dio MAGNari aparteko natur baliabide honen irabaziak Baztango jendeekin partekatzeke, euren bizian integratzeko eta elkarrekin aurre egiteko etorkizunari.



ABERASTASUNA



→ Artesiagako Magnesita **ongi ordainduak diren lanpostu finkoen** sortzailea da. Zuzeneko 35 lanpostu eta zeharkako 150. Mekanikariak, soldatzaileak, pintatzaileak, elektrikariak, perforistak, garraiolariak, garabilariak, eraikuntza zibila, informatika, topografia, ingurugiro ingeniariak, ostalaritza, elikadura sektorea, burdindegia sektorea.

→ Baztango gazterari **prestakuntza** eskaintzen die, inguruko industri sarea bultzatzen du eta lan finkoa bilatzeko berriz eskualdetara joan behar izatea saihestuz.



INGURUGIROA



→ Artesiagako Magnesitarekin lurzorua eta urak deskontaminatzen ahal ditugu, hobeki ongarritatuak diren soroak erdietsi eta azienda azkarragoak.

→ Ingurumen kalitatearen **kontroleko filtro bikoitza** pasa beharko du: Nafarroako Ingurumen, Lurralde Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren aitzinean eta Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan Departamentuaren aitzinean. Filtro bikoitza horrek bermatzen du prozesuak ingurumena errespetatuko duela.

→ Teknologia **aurreratuena ingurumenaren zerbitzura** Uhal garraiatzaileen karentza, leherketak PRIMADET sistemarekin, pisten etengabeko asfaltatze eta ureztatzeak eta ingurumenean berreskuratze dinamikoa bermatu egiten dute eragin akustiko eta bisual minimoena duen erazketa.

→ Artesiagako Magnesitak erreibua emanen dio eskualdean errotze handia duen industriari, haren etorkizuna bermatuz eta gazteei etorkizuna eskainiaz euren bailaran bertan.

ETORKIZUNA

→ **Epe ertain eta luzerako proiektua** Eratzketak gutxienez 20 urteko ustiatze-epea bermatzen du, baina balleko industria eta enpresa munduan izanen duen eraginak lagunduko du enpresa berriak sortzen, orain dauden jarduerak abokitzen eta urte aunitzetan material eta langileen eskaera sustatzen.



Artesiagako Magnesita

ABERASTASUNA | INGURUGIROA | ETORKIZUNA

00-34 948 63 54 58

Sail honetan iragarkia jartzeko 8€ ordaindu behar da.
Ttipi-Ttapa telebistan eta www.ttipi.net-en ere agertuko da
(nahi izanez gero argazkiarekin).
8 € Rural Kutxako 3008 0080 53 0703304626 kontuan sartu.

...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZIETAN IZANEN DUTE!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. Ttipi-Ttapa ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik.

ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartituak
- 106. Bertzelakoak

GARAJEAK/LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

LURRAK/ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko
- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

ZERBITZUAK

- 201. Hargin/Igeltseroak
- 202. Pintoreak
- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

MOTORRA

- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

ANIMALIAK

- 601. Emateko
- 602. Salerosketak
- 603. Klinikak

DENETARIK

- 701. Galdut / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

HARREMANAK

- 801. Agurrak

ADOS

ELIZONDO.

- 2. eskuko eta promozio berriko pisuak salgai.

BERA.

- 2. eskuko pisuak salgai.
- Etxea salgai.
- Ostatu salgai.

DONEZTEBE.

- 2. eskuko pisu eta apartamentua salgai.
- Promozio berriko 2 duplex salgai.

NARBARTE.

- 2. eskuko pisuak salgai.

DONEZTEBE INGURUAN.

- Baserriak, borda eta lur eremu eraikigarriak salgai.

SUNBILLA.

- Etxeak salgai.

BAZTAN-BIDASOA.

- Bordak, baserriak, etxeak, pisuak, apartamentuak eta terrenoak salgai.

INFORMA ZAITEZI!

948 451 841 / 948 580 705
www.ados-inmobiliaria.com

ETXEBIZITZAK

101 Saldu

LESAKA. 229 m²ko familia bakarreko etxearen proiektua, lur eremuarekin eta lizentziekin salgai. Eremu urbanizatua ura, argia, ur zikinen putzua... Promotoreren bat interesatua egonez gero, permuta egiteko prest. ☎678 526091.



ETXEBIZITZAK 103 Errentan eman

BERA. Pisua errentan ematen da Eztegaran, mo-

ANZABAL INMOBILIARIA

BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA ETA IPARRALDEAN.

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE ETA BIDASOA ALDERDIETAN.

- Eskaintzagarriak baserriak, bordak eta lurak behar ditugu.

ZUGARRAMURDI.

- Baserria salgai 50.000 metro²ko lur eremuarekin.
- Etxe adosatua bere lurarekin salgai.

Tel. 948 580 804

Faxa. 948 581 459

anzabal@anzabal.com

bleztatua. ☎ 948 630270 (eguerdian eta gauean).

Luz St Sauveur (Pirinio frantsesa). Pisua errentan ematen da. Mendian eta tirindulan ibiltzeko aukera: Gavarnie, Tallon, Pic-Ardiden, Tourmalet, Luz-Ardiden, Hautacam... ☎647228663.

ETXEBIZITZAK 103 Errentan eman

BARAÑAIN. Bi logelako pisua errentan ematen nuke. ☎ 666217241.

ETXEBIZITZAK 104 Errentan hartu

BAZTAN. Etxea edo baserria errentan hartu nahi da. Etxea zaindu eta konponketak egiteko prest, alokairu merkearen truke. ☎619 605939.

GARAJEAK/LOKALAK 107 Saldu

IRURITA. Herri sarreran 40 m²ko lokala salgai. ☎648 607546 / 637 993939.

LESAKA. Ileapaindegia izandako 70m²ko lokala salgai, ileapaindegi eta estetikaz zentzurako erabilgarria eta etxebizitza egiteko bai-

BULDAIN INMOBILIARIA

Leitzan:

Pisu berriak salgai, Erosle ondonan.

Leitzan:

Manuel Lasarte kalean. 2 logelako pisua salgai. 25.000.000pezetan.

Amazabal, 37 beheko

LEITZA

Tfnoa: 948 510 534

649 476 615



menarekin. 3 leiho eta lorategirako irteera. Bittiria Plaza, 1. ☎948 637774.

GARAJEAK/LOKALAK 109 Errentan eman

LEITZA. Gaztañaga taberna traspasatzen da, MINP proiektuarekin eta erraztasunekin. ☎699 361194.

IRUÑEA. Ikasleentzako pisua errentan ematen da, Zaragoza Etorbidean. 3logela ditu. ☎ 630 045413.

ZERBITZUAK 208 Bertzelakoak



LANA 301 Eskariak

Leitzako emakume bat adinekoak zaintzeko edota etxeko lanak egiteko es-

kaintzen da. ☎619 829289.

LANA 302 Eskaintzak

BERA. Jatetxe batean jendea behar da garbiketa lanak egiteko. ☎617 723475.

ETXALAR. Etxalarko Benta ostatuan lan egiteko zerbitzaria behar da udarako. ☎948 635000.

BERA. Ostatu batean uztaile eta abuztuan lan egiteko zerbitzaria behar da. ☎605 864355.

Bigarren mailako ofiziala behar da urbanizazioetan lan egiteko. ☎616 513491.

ETXALAR. Etxalarko bentan abuztuan garbiketa lanak egiteko neska edo emakume euskalduna behar da. ☎948 635000.

BERA. Lantegi batean tornulari-fresatzailea behar da. ☎948631167(9:00-12:30)

Ostatu batean larunbat gauetan lanean aritzeko **zerbitzariak** behar dira. ☎948 450383.

Ostatu batean **sukaldari laguntzailea** behar da. ☎948 450383.

OITZ. Fregaderan aritzeko eta zerbitzatzeko jendea behar da. ☎948 451951.

BERA. Lixioa ostatuan zerbitzariak behar dira. ☎648 231368.

IRUÑEA. Kirol moda dendan batean lan egiteko neska bat behar da, euskalduna. Bidali argazkia eta curriculum 5134 posta kutxara (31010 Barañain)

MOTORRA 501 Salerosketak

Citroen C5 HDI 110 salgai, extra guztiak. 2005eko uztailekoa. 7.000 km. Prezioa adostuko. ☎679 087082.

TALLERES SANTESTEBAN

948 450282 • DONEZTEBE

KOTXE IA BERRIETAN ESKAINZA ZABALA (6-12 hilabetekoak)

Clio, Modus, Kangoo, Megane,
Megane Grand Tour, Scenic,
Laguna, Laguna Grand Tour,
Espace.

BIGARREN ESKUKOAK

Renault 19 Chamade, Kangoo 1.9 D
(gibeleko alde ixia), Volkswagen
Golf 1.9 DTI 110 CV, Citroen ZX
1.9 TD, Opel Vectra 2.0 DTI 100 CV

Seat Ibiza 1.0 D salgai, 3
atekoa. NA4285AX matri-
kula. 618 889953.

Nissan Almera 1600i sal-
gai. 8 urte. Egoera onean

MENDAUR MOTOR

948 450333 • DONEZTEBE

Bigarren eskuko kotxeak:

Mitsubishi DID 3 ate automatikoa eta manuala,
Vitara 3-5 ate TD, Opel Astra, Grand Vitara 5 ate,
Opel Zafira, Terrano II, Opel Frontera 3-5 ate,
Galoper 3-5 atekoa, Galoper Super Exceed 3ate,
Montero IO 5 ate, Golf 1.9 TDI, Ibiza eta Almera.
SUZUKIAK ETA VITARA AUKERAN

eta ITV pasatu berria. 948
631054 (deitu 20:00etatik
aitzina)

Rover 218 TD salgai, NA-
3008AN matrikula. Egoe-
ra oso onean. 618
962628.

MOTORRA

502 Tailerrak

ANIMALIAK

602 Salerosketak

Setter Ingeles arrazako za-
kurkumea salgai. Emea
eta hiru koloretakoa. Hiru
hilabete ditu. 948 630238.

DENETARIK

702 Salerosketak

Ping-pong mahaia salgai.
619 308060.

DENETARIK

703 Bertzelakoak

DONOSTIA. 3 ikasle pisu
bila Euskal Herriko Uni-
bertsitatearen inguruan,
Antiguon. Presazkoa.
680187344.

MERKATU TTIKIA



zure iragarkia 3 tokitan

Aldizkaria
+
Telebista
+
Internet

8€

ttipi-ttapa • 948 635 458 • www.ttipi.net

STIHL®

Stihl timbersports

Nekazaritza Bidasoa

Abuztuak 4

Stihl timbersports

Plaza Urdanibia

IRUN

anima zaitezte!



Argazki soilak: 4 €. Bikoitza: 8 €. Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,30€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekia. Argazkia itzultzeko kartazala eta helbidea bidali.

Argazkiak berreskuratzeko, bidali kartazala zure helbidearekin.

www.ttipi.net



KATIXA OIARTZABAL MAISTERRENAK 5 urte beteko ditu abuztuaren 6an. Zorionak eta muxu haundi bat Le-karoz eta Oiarz-ungo familiaren partetik.



Uztailaren 22an urteak bete dituelako, zorionak **AMA!** Muxu hauni bat zure alaben partetik.



NEREA ORDOKI ETXEPETELEKU lesakarrak 6 urte bete ditu uztailaren 16an. Zorionak familiaren partetik eta 6 muxu Unaxen partetik. Aunitz urtez!!!



NAROA ARRIZURIETA TELLETXEAK 2 urte bete ditu uztailaren 12an. Zorionak denon partetik, eta bereziki zure anaia Jonen partetik.



IRENE PETRIRINA beratarrek 25 urte bete ditu uztailaren 12an. Aunitz urtez atarren partetik.



JULEN eta NAHIA ITURRIA GARCIA beratarrek uztailaren 29an 3 urte beteko dituzte. Zorionak eta muxu haundi bat izeba Nekane eta familia guztia- ren partetik.



CHRISTELLE GARCIA beratarrek urteak beteko ditu uztailaren 31n. Zorionak eta muxu haundi bat Julen, Nahia eta familia guztia- ren partetik.



DONEZTEBEKO NAXARA JAUN-SARASEK 7 urte bete ditu uztailaren 21ean. Zorionak gure panpoxari aita, ama, amaxi eta anaia Matti- nen partetik.



NAROA VILLALBA LARRALDEK 3 urte bete ditu uztailaren 25ean. Zorionak Lesa- kaka familiaren partetik, bereziki amaxiren partetik. Muxu haundi bat!!!



Zorionak **NAROAAA!!!** Martxelek eta aitaxik muxu handi bat eta besa- kada bat bidaltzen dizkizugu. Ongi portatu!



EKHIÑE eta KEMEÑE uztailaren 20an eta 21ean urteak bete dituzte. Zorionak eta muxu pila etxeko- en partetik.



KEMEÑE RUIZ ZAPIAÍN beratarrek urtea bete du uztailaren 21ean. Zorionak Pottotto!! Attatto, amatto, ataxi eta bi amaxiren partetik.



Belarritik borts aldiz tira/ ta zorionak kantari/ uztailaren hogeian denek/ ekin zu goxatzeari/ attak pastela amak besta ta/Iraia hor adi-adi/ ongi pasatu zure eguna/ berentzen eta jostari/ hartu opari ugari.



Berako AINHOA MARTIN RODRI- GUEZEK 4 urte beteko ditu uztailaren 26an. Zorionak eta muxu haundi bat amaxi Pili- ren partetik.



ANE MOLINERO BARRETO beratarrek 2 urte beteko ditu abuztuaren 26an. Zorionak zure familiaren partetik eta ongi pasa eguna.



GARAZI MIGELTORENA MITXELENA lesakarrak uztailaren 23an 5 urte bete ditu. Zorionak ama, atia eta amaxiren partetik. Segi beti be- zain alaitsu. Aupa txapeldun!!!



Berako ARRIETA eta Donamariako CLAUDIOK uztailaren 28an eta 30ean urteak beteko dituzte. Zorionak familiaren partetik eta segi beti bezala petit-suissak jaten!



MADDI SAN SEBASTIAN ARRAI- ZAK abuztuaren 13an 3 urte beteko ditu. Zorionak familia guztia- ren partetik. 3 muxu haundi.



Berako UNAI ETXEGARAI EL- GORRIAGAK 4 urte beteko ditu uztailaren 31n. Zure familiaren partetik aunitz urtez eta 4 muxu gure indio titikari.



Bera eta Lesakako hiru MORROSKO hauei zorionak eta aunitz urtez zuen familiaren partetik.




XABIER LARRETXEA ALZUGARAI lesakarrak 7 urte beteko ditu uztailaren 29an. Zorionak familia guztia- ren partetik.



ENAUT IPARRAGIRRE ZINKUNEGI etxalartarrak 14 urte beteko ditu uztailaren 27an. Mila kilo zorion Aimar, atia eta amaren partetik. Muxu haundi bat!



ZUBIETAKO IKER LOIARTE OTXANDORENAK 3 urte bete ditu uztailaren 21ean. Aunitz urtez familiaren partetik, bereziki Naroa, Garazi eta Uxueren partetik



ORTI AROTZENA PORTU lesakarrak 3 urte beteko ditu abuztuaren 16an. Aunitz urtez aitaxi-amaxi, aiton-amona eta osaba-izeben partetik.



ORTI, Sagardi- baitako piratak 3 urte beteko ditu abuztuaren 16an. Zorionak amaxo, aitaxo eta berexiki Le- xuri arrebaren partetik.



ORTI AROTZENA PORTU lesakarrak 3 urte beteko ditu abuztuaren 16an. Txokolatezko muxu bat Porrotx zure lagunaren partetik. Segi beti be- zain bihurri, Katxiporreta!



UXUE ALUSTIZA IPARRAGIRRE aranz- tarrek 4 urte beteko ditu abuztu- aren 14an. Zorionak eta muxu haundi bat aita, ama eta Bihotzen partetik.



ELIZONDOKO AIMAR TELLETXEA GALARREGIK 8 urte beteko ditu abuztuaren 25ean. Zorionak Xabier eta Enekoen partetik.



EIDER INDABURU LOIDI etxalarta- rrek 2 urte beteko ditu abuztuaren 18an. Zorionak familiaren partetik, eta berexiki Mi- kelen partetik.



Iruiritako **EVA OPOKARI** eta Zubietako **KARMELE eta ENDIKA SANTESTE- BAN** izeba-ilobei zorionak uztalean urteak bete dituztelako. Muxu asko familien partetik.



JUNE APEZTEGIA ETXEBESTE sunbeldarrak abuztuaren 7an 8 urte beteko ditu. Muxu haundi bat familiaren eta berexiki Ibai eta Janireren partetik.



JUNE APEZTEGIA ETXEBESTEK 8 urte beteko ditu. Aunitz urtez eta muxu haundi bat Ekiñe, Iradi, Maialen, Xabi, Jexux Mª, Ainara eta Jaioneren partetik.



IRADI ARRETXEA OTXANDORENA sunbeldarrak abuztuaren 21ean 3 urte beteko ditu. Aunitz urtez familiaren eta bere- xiki Maialenen partetik.



IRADI ARRETXEA OTXANDORENA sunbeldarrak 3 urte beteko di- tu. Muxu haun- di haundi bat Ekiñe, Ainara eta Xabiren partetik.



Zorionak POTXOLO! Aunitz urtez Ttipi-ttapako zure lagun- en partetik. Ea noiz egiten diguzun bisita aitaxorekin, baina oraingoan pas- tela ekarri beharko duzu. Muxu haundi bat eta ongi pasa!



JOANES SAGASTIBELZA ZABALAK urtea beteko du abuztuaren 4an. Zorionak pottoko Leitzako eta Hondarribiko fami- lien partetik. Muxu haundi haundi bat.

Martiko®
Keztatuak

Martiko Pol. Zalain, s/n
31780 Bera. Nafarroa.
Tel: 948 625156 Fax: 948 625157
www.martiko.com



B E S T A O N A K P A S A !



Ahatekietan adituak
eta arituak

Martiko Pol Zalain, s/n.
31780 Bera. Nafarroa
Tel: 948 625016 Fax: 948 625036
www.martiko.com



Z O R I O N A K !

**VENTA
PEIO**

Venta Peio
Ibardingoa gaina, Ibañeta.
Tel: 948 63 07 19
Fax: 948 63 13 06



JAI ZORIONTSUAK



can 

hemen zeuk
erabakitzen duzu